

# Goienkaria

2010eko martxoaren 26a > Egubakoitza > X. urtea > 415. zenbakia > Doan banatzekoa

Goiena 10 URTE www.goiena.net TOKIKOM

"Azkeneko 30 urteotan erakundeetan egin dugun lana aldarrikatu gura dugu"

Juan Carlos Bengoa  
Hamaikabat-eko bailarako koordinatzailea > 08



G2a

Jone Larrañagak  
Gaztea irratiaz  
egin du berba > 39

HEZKUNTZA  
Lanbide Heziketaren astea  
antolatu dute apirilerako > 04

JENDARTEA  
09:30ean abiatuko da bihar  
Arantzazura erromesaldia > 05

JENDARTEA  
Arrasaten ere egon da Arregiren  
ukitzeen berri > 11

KULTURA > JAIALDIA

## Aurrekontu murrizketagatik bi egunekoa izango da Mundumira

**MURRIZKETA** Aurrekontuak %20ko jaitsiera izan du; hori dela eta, egubakoitzeko kontzertuak kendu egin dituzte

**120.000 EURO** Horixe da festa horretarako bideratuko dena; Debagoieneko Mankomunitateak kopuru horren %70 jarriko du

**ANTZUOLAN** Han izango da, maiatzaren 28an eta 29an; besteak beste, Ojos de Brujo musika taldea egongo da > 05

EUSKARA > GOIENA

## Goiena sortu zutela 10 urte dira

Debagoieneko euskara elkarteek Goiena sortu zuten 2000ko martxoaren 31n > 02-03



AGERRALDIA Herritarrek ikurrina eskuan zutela egin zuten prentsaurrekoa, Bergarako Santa Ana parkean.

MONIKA BELASTEGI

## Aberri Egunean ikurrina balkoian jartzeko deia

Apirilaren 4an ospatuko den Aberri Egunean parte hartzeko deialdia egiteko agerraldia egin dute Bergaran hainbat esparrutako herritarrek.

Bi gonbit egin zituzten: Aberri Egunean Nazioa gara, estatua behar dugu!

lelopean Irun eta Hendaia artean egingo den ibilaldian parte hartzeko, bate-tik; eta bestetik, etxeetako balkoietan ikurrina zintzilikatzeko. Apirilaren 4an, batik bat, estatua aldarrikatuko dutela azpimarratu zuten. > 15

### AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05  
Iritzia > 06  
Gutunak > 06  
Elkarrizketa > 08  
Herriak > 09-36  
Kirola > 38  
Kultura > 40  
Gazteak > 42  
Sailkatuak > 43  
Telebista-Irratia > 44  
Berri-zakua > 45  
Eskelak > 45  
Non-zer > 46-47

### Ezkontzen gaineko gehigarria

GOIENKARIArekin batera, 12 orriko gehigarria ezkontzei buruz, dena koloretan.



PILOTA > SORALUCE SARIA

## Ontsalok jantzi du lehen txapela

Bergarako lau terdiko Soraluec Koop. sariko lehen edizioa arrakastatsua izan da. Amateur mailan puntako pilotariak jokatu dute, eta martitzeneko finalean Aresoko pilotari Unai Ontsalok jantzi zuen txapela. > 37




Unai Otsalok.

XABIER URTZELAI

### Ordu aldaketa

Udako ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko ordu bietan hirurak izango dira; ez ahaztu!





Goiena sortu zen batzarraren ondoren ateratako argazkia, orain dela 10 urteko martxoaren 31n. Euskara elkarteetako kideak daude argazkian.

ARTXIBOA

KOMUNIKABIDEAK > GOIENAK 10 URTE

# Euskara elkarteek Goiena sortu zutela 10 urte dira

**SORRERA** 2000. urteko martxoaren 31n egin zuten Goienaren sorrera batzarra euskara elkarte guztietako ordezkariak Aretxabaletan, Otaloran

**ELKARTEAK** Sortzaile eta protagonistak bailarako euskara elkarteak izan ziren; bailara osora zabaldu zuten euskarazko aldizkari bat eta telebista bat

**BALORAZIOA** Orduko eragileek txalotu egiten dute Goienak lortu duen egonkortasuna, dauzkan produktuak eta aurreikuspenak "gainditu" izana

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Martxoaren 31 baten, 2000. urtekoan, Debagoieneko euskara elkarteek bat egin zuten enpresa berri bat sortzeko, euskarazko komunikabide bat, esparrua Debagoiena izango zuena: Goiena. Ilusioa eta zalantzak ziren bidelagun.

Goiena 1999. urtean hasi ziren gorpuzten; Arrasateko AED euskara elkarte eta ARKO (Arrasate Komunikabideak) eta Bergarako Jardun euskara elkarte ziren aitzindariak, eta, pixkana, Debagoieneko herri guztietako euskara elkarteak ingururazi zituzten; euskara elkarerik ez zuten herrietan, halakoak sortu egin ziren, euskara elkarteek izan behar zutelako protagonistak. Gero, udalak joan ziren bat egiten.

ARLO ESTRATEGIKOA

Oinarriak jarrita zeuden. Hone-ladiora Estepan Plazaola Jarduneko kide eta Goienako presidentek: "Edozein hizkuntzatarako, hedabideak funtsezkoak dira. Herri hedabideak estrategikotzat jo genituen". Orduan, Debagoieneko zenbait herrik bazuten euren aldizkaria, eta Arrasaten

eta, neurri txikiagoan, Aretxabaletan telebista zegoen. Prentsa idatzia eta telebista, biak ibar osora zabaltzeko beharra ikusi zuten, eta baita publizitatea ere batera kudeatzea. Gakoa elkarlana zen.

Erabaki zen enpresa bitariko kooperatiba izango zela: euskara elkarteak izango ziren jabe nagusiak, udalak ere bazkideak izango ziren, eta baita langileak ere, eta beste enpresa pribatu batzuek ere izango zuten aukera bazkide izateko.

SENDOA ETA PROFESIONALA

Arkoren aldetik Mikel Irizar ibili zen Goiena bultzatzen. Hark argi dauka: "Goienak 10 urte bete baditu, gauzak ondo egin genituelako da. Asmatu egin genuen produktuan, eredu ekonomiko eta juridikoan, antolaketa... eta orain, Goiena sendo dago".

Iban Arantzabalek Goienan jarraitzen du, eta orain 10 urte Elgetako ordezkari gisa ere han egon zen. Haren iritziz, emaitzak "aurreikusi baino hobeak izan dira. Gure kasuan, lehen hilabeteakari bat genuen eta Goienak hedabide aukera nabarmen han-

**Euskara elkarteak izango ziren oinarria; hala, elkarerik ez zuten herrietan sortu egin ziren, Goienan ordezkatuta egoteko**

**Udalak ere bat egiten joan ziren Goiena proiektuarekin; batzuk hasieratik sartu ziren eta beste batzuk, geroago**

ditzea eta hobetzea ekarri du. Goiena gaur egun erreferente bat da euskarazko eskualde hedabideen artean".

Marijo Deograsiasek idazkari lanak egin zituen batzar haieran, Antzuolako euskara elkarte-kide zen, eta *Arrasate Press*-ko zuzendaria: "Ez naiz damutzen lau orrialdeko gure *Kontuola* hamabostekaria birmoldatu behar izanaz, GOIENKARIAk herrietako astekariak hartu zituenean. Profesionalizazioa ekarri dio Goienak eskualdeko kazetarigintzari eta erakundeen inplikazioak komunikazio talde sendoa sortzeko aukera eman du".

Orduko kezkak adierazten dituzte Mikel Uribeberria aretxabaletarraren hitzek: "Beldur ginen Aretxabaleta galduta gertuko ote zen bailara osoko informazioaren artean. Baina helburua zen bailarako ikuspegitik lehen herrian egiten zena bermatzea, osatzea eta kalitatea eta profesionaltasuna hobetzea".

Orduko Eskoriatzako euskara elkartearen ordezkari gisa Andoni Bengoa egon zen: "Enpresa moduan egonkortuta dagoela

dirudi eta baliabide eta zerbitzuak asko hazi dira". Baina hau ohartarazten du: "Sustatzaile izan ziren euskara elkarteek beherakada izan dute, eta, Goienaren oinarrietako bat direnez, hankamotz gelditzeko arriskua dago".

Hasieratik Goienako bazkide izan zen Arrasateko Udala, Xabier Zubizarreta orduko alkateak ordezkatuta. Hauxe da haren balorazioa: "Sorreran, alde onak eta arriskuak ikusi genituen. Tokiko hedabide guztiek daukate gaur egungo medio handien ildoari jarraitzeko joera. Hala ere, oraindik, herrietako albisteak hurbiletik emateak baditu abantailak, eta aukerak zabalak dira denek parte hartzeko. Goiena esperientzia interesgarria da eta merezi du, baina oso ondo zaindu behar du bere tokiko izaera eta bere estiloa gordetzea".

Oñatin Goiena bultzatu lantaldean zegoen Lourdes Idoiaga, eta honela dio: "Oso proiektu garrantzitsua izan zen, eta bete-betean asmatu du, euskararen normalakuntza aldetik eta baita hurbileko albisteak xehetasun handiarekin ematen dituelako".

IKUSPUNTUA



Estepan Plazaola, Goiienako presidentea

## Askoren ekarpenari esker

**E**konomikoki zaila da komunikabide lokalen mundua. Erdaraz ere zaila eta euskaraz zailagoa. Debagoienean nabarmentzekoa izan da hedabideok bultzatzen hasiera-hasieratik udalek izan zuten protagonismoa. 1988an Arrasaten sortu zen lehenengo euskarazko toki aldizkaria eta *Arrasate Press*-ekolangelak Udalak INEMen bidez kontratuak izan ziren. Berdin gertatu zen Bergaran ere, *Berrigara* sortu zutean. Oñatik, berri, udal komunikabideak sortu zituen. Eta gaitzako herrietako udal enkarpena ere garrantzitsua izan zen. 1996an, adibidez, Debagoieneko toki-hedabideetako diru-iturrien %49 zeterren udalengandik.

Gaur egun ere udalen ekarpena inportantea eta ezinbestekoa da. Haiek barik ezinezkoa izango litzateke euskarazko telebista bat dohainik eskaintzea edota egubakoitzero aldizkari bat etxe guztietara banatzea. Laguntzok, baina, azken urteetan jaitsiaz joan dira eta gaur egun Goiienaren aurrekontuaren %25 dira. Goiienak, beraz, euskara elkar-

teen ekimenez eta udalen bultzadaz sortutako proiektu haiek bideragarriago izateko bidea zabaldu du.

Eta hori lortu da zenbait apurturirekin batera: banatzaileen egoera laborala erregulartzatzea, inbertsio teknologiko garrantzitsuak egitea, hainbat egitasmo berri bultzatzea... Esaterako, prentsako banaketa gastuak ia laukoiztu egin dira 10 ur-

tean (55.491 euro ziren 2001ean eta 204.073, 2009an); telebistaren hedapena digitalizatzea 70.000 euroko inbertsioa ekarri du eta azkeneko 10 urte hauetan hainbat zerbitzu

berri jarri dira abian: *Asteleheneko Goiienak*, hainbat webgune, Danbaka musika lehiaketa, Kantari haur programa...

Horretarako ezinbestekoa izan da beste erakundeen eta merkatariekin, enpresa eta herritarren ekarpena.

Hamargarren urteurren hau guztiei eskerrak emateko eta aurrera ere bidelagun izan gaitzen animatzeko unea da.

**"Goiienak bailarako hedabideak sendoagoak eta bideragarriagoak izatea ekarri du"**



Europako ondoen diseinatutako tokiko aldizkariaren saria jasotzen.

ARTXIBOA



Sei udal Goiienako bazkide egin zirenekoa, 2001eko martxoan.

ARTXIBOA

ESANAK

**"Goiienak 10 urte ditu eta sendo dago, orduan asmatu egin genuelako: produktuan, eremuan, antolaketan..."**

Mikel Irizar > Sortzailea

**"Komunikabideak funtsezkoak dira hizkuntzarendako, eta herri komunikabideak estrategikoak ziren"**

Estepan Plazaola > Sortzailea

**"Herrietako albisteak hurbiletik emateak baditu abantailak, eta aukerak zabalak dira denek parte hartzeko"**

Xabier Zubizarreta > Bultzatzailea

**"Ikusi da bete-beteen asmatu dela, euskara normalizatzeko eta hurbileko albisteak xehetasun handiz ematen dituelako"**

Lourdes Idoiaga > Bultzatzailea

**"Ilusio handia zegoen: bertatik bertarako euskarazko komunikabiderik ez geneukan"**

Mikel Arantzabal > Sortzailea; aramaioarra

**"Profesionalizazioa ekarri dio eskualdeko kazetaritzari eta erakundeek talde sendoa sortzen lagundu dute"**

Marijo Deogracias > Kazetaria

LABUR

### Andres Urrutiak erregistratu zuen

2000ko ekainaren 27an, Bilbora joan ziren euskara elkarte guztietako ordezkariek, han baitzegoen estatutuak euskaraz erregistratzen zituen notario bakarra, Andres Urrutia.

Goiena Telebista emititzen hasi zen 2000ko maiatzaren 22an; eta abenduaren 1ean, GOIENKARIA sortu zen, herri aldizkariaren batera. 2003ko abenduan, *Asteleheneko Goiienak* sortu zen. Telebistak 8.000 ikusle ditu Gipuzkoan, eta GOIENKARIA liderra da Debagoienean, 32.000 irakurlerekin (Gipuzkoan, 41.000).

### Teknologia berriak, hasieratik oinarrian

Teknologia berriei garrantzi handia eman die Goiienak hasieratik, eta horrek ere bere fruituak eman ditu: *Goiena.net* atariatz gain-egunero 2.300 bat bisita dituen, Goiienak beste *on-line* hedabide batzuk bultzatu ditu (*Sustatu, Zugaz...*) eta E-Debagoiena proiektuan parte hartu zuen.

Mikel Irizarren esanetan, ikuspegi horretan asmatu egin zuten sortzaileek: "Orduan, inork ez zekien Internet bidezko komunikazioa zelakoa izango zen, baina ikusten zen komunikazioa ez zela kanal bakarrean izango".

### Bi sari garrantzitsu eta hainbat mugarr

GOIENKARIAK bi sari garrantzitsu jaso ditu: 2002ko urtarrilean, prentsaren atalean Argia saria irabazi zuen, eta 2003an, European Newspaper Awards delakoan, European ondoen diseinatutako tokiko aldizkariarena. Beste hainbat sari irabazi ditu, batez ere, diseinukoak: barruko hainbat atalengatik, azal onenarengatik... Espainian eta European. Bestalde, 2003. urtean oihartzun handia izan zuen eskusiba bat eman zuen: *CSI* telesailko William Petersen aktoreari elkarrizketa egin zion, hura Oñatin bizi izandakoa zelako.

### Hartzaileendako, orain, Goiena Kluba

Goienaren hartzaileak Goiena Klubeko kide egiteko aukera dute orain. Asteleheneko Goiienak-ko harpide zirenak Klubeko kide izatera pasa dira. Asko dira Goiena Kluba eskaintzen dituen abantailak: GOIENKARIA astelehenean eta egubakoitzetan etxeko postontzian jasotzea; Goiienak antolatutako ekitaldi eta ikastarotetan, eta egiten dituen produktuetan -DVD kopiak, CDak, kamisetak, eskelak...- prezio berezia; opari eta deskontu paregabeak; eta Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera.

R.B.S. Nº 190/04 I.L.G.

# MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

## ZEUK AUKERATU

[www.multiopticasgipuzkoa.com](http://www.multiopticasgipuzkoa.com)

mó

betaurreko progresiboak

# 147€

kristalak barne

Baliagarna 2010eko apirilaren 30era arte. Ezin daiteke beste eskaintza edo promozio batzuekin pilatu.

J. Carlos Guerra 1 • Tel. 943 79 29 95 • **ARRASATE**

Ibargarai 16 • Tel. 943 76 15 75 • **BERGARA**



Mankomunitateko eta Lanbide Heziketa zentroetako arduradunak aurkezpen ekitaldian.

A.E.

## JENDARTEA &gt; HEZKUNTZA

## Lanbide Heziketaren astea antolatu dute apirilera

Apirilaren 13tik 17ra izango da; hitzaldiak egingo dituzte Mankomunitateko egoitzan, eta azoka Arrasateko Kulturaten

## ARANTZAZU EZKIBEL &gt; ARRASATE

Bigarren urtez jarraian antolatu dute Lanbide Heziketako zentroek eta Mankomunitateak Lanbide Heziketaren astea. For-

*mazioa lanerako zure aukera!* lelopean, formazioaren garrantzia azaldu gura dute. "Formazioa da krisiaren aurrean indartsuago egoteko aukera", azaldu zuen aurkezpenean Edurne Erauskinek, Arizmendi ikastolako Lanbide Heziketako arduradunak.

Apirilaren 13tik 17ra egingo dute aipatutako astea; eta, besteak beste, hitzaldiak eta azoka egingo dituzte.

## HITZALDI ZIKLOA

Apirilaren 13an, *Ekonomiaren krisia, bere eragina lan merkatuan*

*eta sektore publikoa lanbide bezala* hitzaldia egingo du Felix Gerenabarrena EHUKo irakasleak; hilaren 14an, *Langabezian nago, eta orain zer?* hitzaldia Rosa Mari Ezkurraren eskutik; eta, apirilaren 15ean, *Eman balioa zure esperientziari*. Hitzaldiok Mankomunitatean izango dira, 18:00etan.

Azoka apirilaren 16an, egubakoitza -10:00etatik 18:00etara- eta 17an, zapatua -10:00etatik 13:00etara- izango da Arrasateko Kulturaten. Apirilaren 16an Jose Luis Elortzak *Lanbide Heziketa. Zer da?* azalduko du.

## TELEBISTA &gt; SEINALEA

## Bergaran eta Oñatin ere ikus daiteke GOITB Lurreko Telebista Digitalean

Deskodetzailea izanez gero, GOITB Lurreko Telebista Digitalean ikusteko 52. kanalean sintonizatu behar da Goiena Telebista

## A.E. &gt; BERGARA

Asteon ipini dituzte ekipo digital berriak Bergarako San Migeleko dorrean. Horri esker eta telebistak edo antenak egokitu ta egonez gero, Bergaran Goiena Telebistaren seinale digitala jasotzen dute dagoeneko. Oñatin, atzo egin zituzten Belarreko antenan egokitzapenak; hortaz, dena ondo joanez gero, gaur bertan ikusi ahal izango dute Oñatin ere GOITB LTDan.

## 52. KANALA

GOITBk digitalera eman duen bigarren saltoa da honakoa. Lurreko Telebista Digitala ikusi ahal izateko eta deskodetzailea izanez gero 52. kanalean sintonizatu behar da Goiena Telebista. Sintonizatzeko probak egin eta Goiena Telebista aurkitzen ez bada tekniko batekin ipini beharko da harremanetan, arazoa konpon dezan, eta antenan beharrezko egokitzapenak egin ditzan.

Goienak aurrera jarraitzen du digitalizazioaren bidean. Bigarren saltoa da honakoa, baina gehiago ere etorriko dira, izan ere datozen egunetan, apurka-apurka Goiena Telebistaren seinale Digitala Debagoieneko gainontzeko herrietara iristen joango da. San Migeleko saltoa ezinbestekoa zen Antzuolara eta Elgetara ere seinalea bidaltzeko. Astebete barru edo digitalean ikusi ahaliko da Goiena aipatutako bi herriotan ere.

## HIRU HERRI FALTA DIRA

Helburua da prozesua ahalik eta azkarren bukatzea eta Goiena Telebista laster Debagoiena osoan Lurreko Telebista Digitalaren bitartez ikustea. Seinale digitala jasotzeko falta diren herriak dira: Elgeta, Antzuola eta Aramaio.

Euskalteleko bezeroek orain arte bezala jarraituko dute GOITB ikusten. Ez dute ezer egin behar euren etxeetan.



# IRURAK MARGOAK

## DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak

Moketa eta sintasola

Iztuku esponjatua

Paper pintatuak

Harea zorrotada

Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 25 99 83 / 667 54 89 16

Faxa: 943 76 09 32

KULTURA > AURKEZPENA

# Mundumirak egun bat gutxiago izango du, aurrekontuaren murrizketa dela-eta

Maiatzaren 28an eta 29an egingo da aurten munduko kulturen festa, Antzuolan

Garraio publiko zerbitzu ona emateko lanean ari direla esan du Antzuolako alkateak

MIRIAN BITERI > ANTZUOLA

Berrikuntzekin dator aurtengo Mundumira. Esanguratsuen da aurrekontua %20 murriztu egin dela, eta, hori dela-eta, maiatzeko azken asteburuan Antzuolan egingo duten munduko kulturen festak egun bat gutxiago izango duela. Atzo, eguna, egindako aurkezpenean, Mundumira markaren jabe diren Euskal Herria eta Gintonic enpresetako ordezkari Txusma Perezek jakinarazi zuen egubakoitzean ez dela kontzerturik eta kale animazioerik egongo: "Horren ordez, Iñaki Otxoa de Oltza mendizalearen gaineko filma proiektatuko da eta SOS Himalaya fundazioaren aurkezpena egingo da".

Bestelako berrikuntzen berri ere eman zuen, hala nola nekazaritza ekologikoak bere tokia izango duela, Euskal Herriko boulder txapelketa egingo dutela osteraren ere eta jaialdirako egindako kamisetekin lortutako diru kopurua Debagoieneko GKEen lau proiektuendako bideratuko dela.



Atzo, eguna, egin zuten aurtengo Mundumira jaialdiaren aurkezpena, Antzuolako Olanaren etxean.

MIRIAN BITERI

## AKATSAK ZUZENDU

Antzuolako alkate Pedro Iturbek aipatu zuen antzuolarren parte-hartzeari esker jaialdi "txukuna" antolatzekeo kapazak izango direla. Horren harira, gogorarazi zuen dagoeneko lantaldeak osatu direla; nabarmendu zuen talde batek gogor diharduela lanean, aurreko edizioetan garraio publikoan izandako akatsak zuzentzeko eta zerbitzu ona eskaintzeko.

## ESANAK

**"Iñaki Otxoa de Oltzaren gaineko filma proiektatuko da eta SOS Himalaya fundazioa aurkeztuko da egubakoitzean"**

Txusma Perez > Koordinatzailea

## DATUA

**120.000**

EURO

Horixe da aurtengo jaialdia antolatzekeo bideratuko den diru kopurua. Debagoieneko Mankomunitateak %70 inguru jarriko du; gainerakoa, babesleek.

## Jaialdiaren egitaraua

### Maiatzak 29, zapatua

**09:00** Herriko iturrietara irteera.  
**11:00** Kultura ibilbideak, III. autokarabana kontzentrazioa Goizperren, azoken irekiera, kalejira eta Euskal Herriko boulder txapelketa pilotalekuan.  
**11:30** Turismo arduratsua: Elkartasun Bidaiek 2010 aurkezpena Olanaren etxean.  
**12:00** Kontzertua: Klakison eta Rumba Vella taldeak.  
**12:30** Nekazaritza ekologikoa Iparaldean hitzaldia, Olanaren.  
**13:00** Malabaracisco taldearen ikuskizuna.  
**13:30** Gipuzkoa Bideak, Mendiz-Mendi Mendez-Mende proiektuaren aurkezpena Olanaren.  
**16:00** BTT ibilaldia Uzarragatik.  
**17:00** Azoken irekiera, kalejira, eta boulder txapelketa.  
**17:30** OTRAS realidades film laburren jaialdia Torresoroan.  
**18:00** Kale animazioa.  
**18:30** Islandiaren gaineko ikus-entzunezkoa Olanaren.  
**19:00** Oetatik aurrera Kontzertuak: Baião Brasil; Jarraian, Gose eta Ojos de Brujo.

### Maiatzak 30, domeka

**09:00** Auzoetara irteera.  
**11:00** Kultura ibilbideak, azoken irekiera, txistulariekin kalejira, Oihulari Klown taldearekin kalejira eta Boulder erakustaldia.  
**12:00** Txahala erretzea Kalebarrenen eta umeendako saio didaktikoa Girasons-ekin.  
**13:30** Kontzertua: Thomso.  
**16:00** Ipuin kontalaria eta trikitixa emanaldia.  
**17:00** Azoken irekiera.  
**18:00** Kontzertuak: Gangbe Brass Band eta Tacumah Reggae Band.

> IZENDAPENA

## Iñaki Nafarrate aramaioarrak ordezkatu du Alfredo de Miguel Arabako Foru Aldundian

Toki Administrazioaren eta Lurralde Orearen saileko foru diputatu izendatu zuten joan den martitzenean Arabako Foru Aldundian Iñaki Nafarrate aramaioarra. Orain arte, sail horretako zuzendari kargua izan du. Izendapen berri hori Alfredo de Miguel diputatuaren dimisioaren ondotik dator. Joan den astean alderdi jeltzaleko zortzi lagun atxilotu zituen Ertzaintzak Arabako Diputazioaren ustezko ustelkeria kasuagatik; tartean, Alfredo de Miguel atxilotu zuten.

> ELIZA

## Jose Ignacio Munillak lehen aldiz hartuko du parte bihar egingo duten Arantzazuko martxan

Bihar, zapatua, Arantzazuko martxa egingo dute milaka lagunek, *Konpromisoaren hitza* lelopean. Aurtengo berezitasuna da Donostiako gotzain Jose Ignacio Munilla izango dela ibilbide horren buru. Ekimen erlijiosoa 09:30ean irtengo da Soraluze hoteletik; eguerdirako santutegira iritsiko dela aurreikusita dago. Hori dela eta, Oñati eta Arantzazu arteko errepidea 08:30ean itxiko dute ibilgailuendako. Bestalde, urtero moduan, itzulera autobusean egiteko aukera izango dute erromesek; horretarako, autobus zerbitzu berezia jarriko dute Oñati eta Arantzazu artean.



MIRIAN BITERI

## Debagoieneko exekutiba aurkeztu zuen atzo Bergaran H1! alderdiak


Hamaikabat alderdiaren Debagoieneko exekutiba aurkeztu zuten atzo Bergaran. Bailarako koordinatzaile Juan Carlos Bengoak Amaia Intza koordinatzaileordea, Karmelo Lezeta, Miguel Angel Delgado, Ernesto Murgiondo, Iñaki Ugarteburu eta Bittor Gorrotxategi izango ditu ondoan. Agerraldian Bengoak jakinarazi zuen bailaran lau gairen gaineko jarraipen berezia egingo dutela: krisiari aurre egiteko martxan jartzen diren neurriak, gizarte politikaren gaineko planak, garraio publikoaren arazoa eta hiltegia.



Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

# hemen bada giro!

## Arlutz taberna



*Gustuko musika*

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

## Anduaga Jatetxea



Eguneko menua | Bokatak  
Plater konbinatuak | Errazioak

Araba Ibilbidea 31, behea | Aretxabaleta | 943 79 96 54



*Loteria eta kinielak*

DORLETA TABERNA

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

## OTZETA JATETXEA



Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

## BASABE



Menuak eta afariak

Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 31 19

## HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



*Matikua jatetxea*

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

## Gurea

TABERNA



Lotoak eta kinielak

Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

## IOSU

*taberna  
harategia*

Urdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak

Mitarte 1  
Tel.: 943 77 03 08



Abertzaletasun historikoa aldarrikatzen du, batez ere azken 30 urteotan abertzaleek eus- kal erakundeak gobernatzen egin duten lana. Hala, EAJrekin elkarlanean jarduteko apustu egiten du, "PP-PSE-EERI aurre egiteko". Ezker abertzaleak hartutako bidez "poztu" egin dela dio. Sozialdemokrazia aldarrikatu eta hortxe kokatzen du Hamaikabat alderdia.

Juan Carlos Bengoa > Hamaikabat alderdiko Debagoieneko koordinatzailea

# "Azkeneko 30 urteotan erakundeetan egin den lana aldarrikatu gura dugu"

ENEKO AZKARATE > BERGARA

EAREN zatiketarik sortutako Hamaikabat alderdi berriaren Debagoieneko koordinatzailea da Juan Carlos Bengoa (Eskoriatza, 1966). Eskoriatzako alkate izandakoa, batzarkidea ere bada. Alderdia eskualdez eskualde hedabideen aurrean aurkeztzen dabil eta aste honetan gurean izan dira.

**Hamaikabat hasi da dagoeneko urtebete barru izango diren udal eta foru hauteskundeetarako prestatzen?**

Epe ertaineko helburu dira hurrengo hauteskundeak, baina oraindik ez gara hautagaien zerrendak eta prestatzen hasi. Une honetan, alderdia sendotzen ari gara eta bailaraz bailara aurkeztzen. Hemendik aurrera eutsiko diogu hauteskundeak prestatzeari.

**Bakarrik aurkeztuko zarete ala EAJrekin?**

Behin eta berriro aipatu dugu Hamaikabaten asmoa dela indarrak metatzea. Gatoz laguntzera, gehitzera. Gaur egungo politikako joera da poloak eta fronteak osatzea. Batetik, talde espainolistak eta, bestetik, polo subiranista. Baina hor badago beste korrante bat eta geure burua hor kokatzen dugu. Azken 30 urteotan erakundeetan egin den lana defendatzen dugun indar abertzaleok osatzen duguna. Hala, EAJrekin elkarlanean jardutearen aldekoak gara. Bi alderdion arteko exekutibek izan dituzte harremanak, baina oraindik ez dago erabakita koalizioa osatuz aurkeztuko garen edo zelan.

**Kataluniako CIU moduko bat osatu nahi duzue EAJrekin batera?**

CIU koalizio erabat iraunkorra da eta guk ez dugu eredu hori geuretzat ikusten. Alderdi bakoitzak bere organoak, lan ildoak eta estrategiak ditu. Hala ere, elkarlanerako bokazioa daukagu Hamaikabaten.

**Zenbat zinegotzi daukazue gaur egun Debagoienean eta zenbat batzarkide Gipuzkoan?**

Gure eskualdean bost zinegotzi daukagu eta zazpi batzarkide Gipuzkoan.

**Kopuru horiek hobetzea espero duzue?**

Nahiko genuke. Abertzaletasun historiko instituzionala defendatzen dugunon arteko



Juan Carlos Bengoa atzo Bergaran, Hamaikabaten aurkezpenean.

ENEKO AZKARATE

elkarlana bultzatu gura dugu. Batez ere, ikusita PP-PSE-EEK diputazioak hartu nahi dituztela. Gure erronka da EAJk eta Hamaikabatek, bakararka edo elkarrekin aurkeztuta, beste biak baino gehiago izatea.

**PSE-EE eta PP nagusi izan daitezke Gipuzkoako Batzar Nagusietan?**

Gerta daiteke. Ikusteko dago ezker abertzale lege kanporatua aurkezteko moduan izango den ala ez, zerrendarik aurkeztuko duen ala ez... Horrek guztiak baldintzatuko du emaitza. Kontuan izan behar da gaur egun PPK eta PSE-EEK dituztela 22 batzarkide eta EAJk eta Hamaikabatek 23. Gainera, azkeneko hauteskundeetan, Legebiltzarrekoetan, PSE-EE nagusitu da Gipuzkoan. Hortaz, emaitza oso estua izango da eta arriskuan dago abertzaletasun historikoa gobernatzen jarraitzea.

EAJ-HAMAIKABAT

**"Oraindik ez dago erabakita EAJrekin koalizioa osatuz aurkeztuko garen"**

IDEOLOGIA

**"Sozialdemokrazian kokatzen dugu geure burua. Ezkerra eta eskuma bereiztea beharrezkoa da"**

ELKARLANA

**"PP eta PSE-EERI aurre egiteko elkarlana beharrezkoa da"**

**Legez kanporatutako ezker abertzaleari lagako diote hauteskundeetan legalki parte hartzen?**

Ez dakit. Une honetan, esango nuke ezetz. Baina ez naiz ausartzen pronostikoak egitera.

**EAREN eta legez kanporatutako ezker abertzalearen arteko akordio ikusten duzu hurrengo hauteskundeetarako?**

Litekeena da. EAn geundenean, kolaborazio horren alde egin zuen zuzendaritzak, eta, besteak beste, horregatik joan ginen EAtik.

**Abertzaletasuna edo erabakitze eskubidearen aldeko eskaintza oso sakabanatuta dagoela ez duzu uste?**

Bai. Batetik, orokorrean, areagotzen ari den bipartidismoa kritikatzeko dugu eta, bestaldetik alderdi abertzale gehiegi daudela, baina horrek ez luke eragotzi behar elkarlan gutxieneko bat.

Abertzaleok uste dugu gehiengo garena, baina gehiengo hori ez da horren handia eta ezin gaitezke aurkeztu hautesleen aurrean fronte baten moduan. PP eta PSE-EERI aurre egiteko elkarlan gutxieneko batzuk gauzatu beharoko genituzke, hala ere.

**Ze ekarpen egiten dio Hamaikabatek euskal politikari?**

Balioa eman gura diogu azkeneko 30 urteotan erakunde publikoetan egin dugun lanari, hori aldarrikatu; izan ere, polo subiranistaren iritziak, abertzaletasun historikoa egin duen lana ia alferrikakoa izan da eta guk, ostera, uste dugu oso positiboa izan dela.

**Ideologikoki non kokatzen da Hamaikabat?**

Sozialdemokrazian. Jendartea desideologizatzen doan heinean, ematen du ezkerra eta eskuma ez direla existitzen, baina oraindik ere beharrezkoa da bereizketa hori egitea, batez ere orain, krisi garaian. EAk ere bere burua hortxe kokatu du historikoki. Eta uste dut hori izan dela euskal jendarteari egin dion ekarpen nagusia. EAJk azkeneko urteetan egin duen politika ikusita, esango nuke kristau-demokrazia-tik sozialdemokrazia etorri dela.

**Ezker abertzale lege kanporatuaren hausnarketa prozesuaren ondorioen gainean zer iritzi daukazu?**

Poztu egin naiz, bide politikoa bakarrik erabiltzearen alde egin dutelako. Bestetik, errespetua zor diet. Kanpotik zenbat eta interferentzia gutxiago, hobeto. Haiek egin behar dute bidea. Alderdi espainolistek esango dute ez dagoela ezer berririk, baina ez nago ados. Uste dut betetako hausnarketa sakona egin dutela.

**ETAREN azken komunikatua zelan baloratzen duzue?**

Komunikatua lerro artean irakurrita, aurrerapauso batzuk ikusi nahi ditut, baina uste hori baieztatuko litzateke guztiz, behin betiko armak utziko baliatuzte. Legez kanporatutako ezker abertzalearen hausnarketa eta ondorioak zintzoak dira, baina ez zaio erraza izango ETArekiko haustura. ETARI eskatuko nioke, behingoz, utz dezala ekintza armatua eta utz diezaiola ezker abertzaleari bere bidea egiten eta bere ideiak defenditzen bide politikoa soilak erabiliz.



# Herriak

Arrasate > 10-13 Bergara > 14-17 Aretxabaleta > 18 Eskoriatza > 31  
Oñati > 32-33 Antzuola > 34 Aramaio > 35 Elgeta > 36 Gatzaga > 36



> **BERGARA**  
Erramu-zapatu eguna ospatuko dute bergararrek mahoi jantzita > 14



> **OÑATI**  
'Friendship' programan 23 herritarrek parte hartu dute > 18



> **ANTZUOLA**  
Aiherran bukatuko dira senidetzea ospatzeko ekintzak apirilaren 18an > 34



> **ARAMAIO**  
Bi proiektu aurkeztu dituzte: galdararena eta 'Baserri Barri' > 35



ELGETA > ARAUAK

## Oinezkoek lehentasuna izango dute Salbador eta beste kale batzuetan

Salbador kale sarreran itxitura automatizatu izango da; bizilagunek urrutiko kontrolarekin maneiatuko dute.

LARRAITZ ZEBERIO

### ARAUTEGIA

Oinezkoen kaleetan ibilgailuak zelan ibili arautegi proposamen bat gertatu dute

### OINEZKOENDAKO

Ibilgailuak ezin izango dira zenbait kaletan ibili, salbuespenak salbuespen

LEIRE KORTABARRIA > ELGETA

Elgetako kale eta leku batzuk oinezkoendako uztea –Salbador, Lasao adokinatua eta San Roke kaleak, Espaloirako bidea eta Espaloiko plazardea, Maala kalea eta Gudarien bideko 6. eta 8. etxeen artean dagoen Torrealderako malda–; kale horietan ibilgailuak ibil daitezten debekatzea, baimendutako egoeretan izan ezik; eta aipatutako lekuetan aparkatzea debekatzea: horiek dira Elgeta Danon Artian programaren barruan oinezkoen kaleetan ibilgailuen erabileraz jardun duen foroaren proposamen batzuk. Foro horrek sei batzar egin ditu azaro eta martxo bitartean, eta bere lana bukatu da.

Arautegi zirriborro hori Udalaren eskuetan dago orain, eta Hirigintza batzordean aurkeztuko da. Gero, udalbatzara ailegatu da, eta Oxel Erostarbe alka-

teak segurutzat jotzen du onartu egingo duela, izan ere, "adostasun maila handia" dago. Alkatearen esanetan, "beranduenez irailen indarrean jartzea da asmoa". Sei hilabeteko proba aldia izango du arauak.

### URRUTIKO KONTROLA

Aipatutako kaleetan, "oinezkoek izango dute lehentasuna". Hala ere, ibilgailuak horietatik ibili ahal izango dira zenbait kasutan. Hori erregulatzeko, itxitura edo pibote automatizatuak izango dira

### PROPOSATUTAKO ARAU BATZUK

> **OINEZKOAK** Salbador, Lasao, Maala, San Roke, Gudarien bideko 6. eta 8. zenbaki artea eta Espaloira bidea eta plazardea oinezkoendako geratu dira.

> **DEBEKUA** Horietan ezin izango dira ibilgailuak ibili, eta ezingo dute aparkatu ere.

> **SALBUESPENAK** Kasu bereziak izango dira zamaanak, erosketa handiak jasotzea, medikura joatea...

> **BAIMENAK** Udaletxean baimen berezia eskatu beharko dute ibilgailua 4 tona baino astunagoa denean, ikuskizun bat taularatzeko joan-etorrietarako...

> **KONTROLA** Itxitura automatizatu duten kaleetan (Salbador) bizi direnek eta negozioen jabeek urrutiko kontrola erabili beharko dute piboteak jaso eta jaisteko.

> **INTERNETEN** Proposamen osoa [www.elgeta.net](http://www.elgeta.net) webgunean dago.

Salbador kale sarreran. Horren haritik, Udalak urrutiko kontrolak banatuko dizkie bizilagun eta merkatariei, batik bat, kale horietan ibilgailua sartu ahal izateko. Alkateak dioenez, "egunerokotasunean, bizilagun horiek jasango dute aldaketa handiena, nahiz eta laster ohituko diren kontrola erabiltzera". Gailu batzuk doan banatuko ditu Udalak –han erroldatuta dauden eta ibilgailu baten jabe direnei, ibilgailuko bana, adibidez– eta beste kasu batzuetarako erosi ahal izango dira. Kontrolak ezingo dira bikoiztu.

Bestalde, Elgetan gaur egun ia inoiz egiten ez den bezala, isunak ipintzeko aukera aurreikusiten da: arauak apurtzen badira, gutxienez 60 euroko isunak, eta, zenbait kasutan, 500 eurokoa. Dena dela, hori "azkeneko neurria" izango da, alkatearen esanetan.

ZERBITZUAK &gt; ITURBIDE EGOITZA

# Lan baldintzak hobetzeak zerbitzu osoagoa ekarriko du

Azpikontratatu lan baldintzak hobetzea lortu da egoitzako errektore batzordean

Iturbideko egoiliarrek nabaritu dute hobekuntza; zerbitzua luzatu egingo da

JOKIN BEREZIARTUA &gt; ARRASATE

Iturbide egoitzan azpikontratatu dauden langileen baldintzak hobetzeko akordioa lortu dute langileen ordezkariak sindikalak -ESK- eta zerbitzua kudeatzen duen Untza enpresak, Udalarekin batera. Hala jakinarazi du Alternatiba-Zutik koalizioak, eta Ander Rodriguez koalizioko zinegotziak honakoa adierazi du: "Iturbideko langileen baldintzak zertxobait hobetzea lortu da, eta zerbitzuaren kalitatean igarriko da hobekuntza".

Baina Rodriguezek gogorarazi du hiru ekimen aplikatzeko daudela oraindik: etxez etxeko laguntza zerbitzua bost ordutan handitzea, beharra dutenendako etxez etxeko janari zerbitzua sortzea eta herriarren parte-hartzerako diagnostikoa eta zuzendaritza plana egitea. Beraz, oraindik badago zer egin, baina aurrerapausoak eman direnik ezin ukatu.



Iturbideko zaharren egoitzako langile bat, logeletako batean lanean.

UBANE MADERA

DATUA

## 2.342

ORDU GEHIAGO URTEAN

Balorazio txostenean jasotzen denez, zerbitzuak %4ko igoera izatea aurreikusten da, 2010ean izan daitezkeen aldaketak kontuan hartuta. Hala, 2.342 lanordu gehiago izango dira.

HIRU ALDAKETA NAGUSI

Zerbitzua hobetzea hiru aldaketa esker etorriko da: batetik, urte osoan zerbitzu bera eskainiko da. Hau da, aste barruan eta aste bukaeran langile kopuru berak jardungo du. Izan ere, Udalaren ustez, "arrazoizkoa" da zerbitzuaren intentsitatea bera izatea aste osoan. Bestalde, egoitzako bigarren solairuan -nagusiek zaintza gehiago behar dute bertan- egunero bi ordu gehiagoz

luzatuko da zerbitzua. Udalak onartzen du bigarren solairu horretan ordu jakin batzuetan "lan karga handia" egoten dela. Hala ere, zaharren egoitza "etengabe aldatzen" ari den zerbitzua denez, litekeena da gerora bi ordu horiek beharrezkoak ez izatea; Udalak proposatu du bi ordu horiek hileroko errebisatzea, beharrezkoak diren ala ez ikusteko. Azkenik, ordu poltsa bat jarriko dute ezohiko beharrak asetzeko.

AISIALDIA &gt; TXATXILIPURDI

## Erdigunea piztuko dute beste behin gazte txokoei

'Piztu eguna' bataiatu dute biharko antolatu duten ekitaldi sorta; Biteri plazan izango da

J.B. &gt; ARRASATE

Txatxilipurdik kudeatzen dituen gazte txokoei nekaezin jarraitzen dute 12 eta 17 urte arteko gaztetxoei aste bukaeretan bizi ohi duten aisialdiaren hutsunea betetzeko saiakeran. Izan ere, *Erdigunea Piztu!* ekimenaren barruan *Piztu eguna* antolatu dute biharko. 16:30ean hasita, gaztetxoei ez dute aspertzeko astirik izango Biteri plazan: *balance* zirkuitua, txalaparta tailerra, bitxigintza, hankapaluak, irrati tailerra, plantilla ikastaroa... Bada, plantilla ikastarorako etxetik eroan beharko da kamiseta edo serigrafiatu gura den objektua.

ERRITMOA ERAMATEN IKASI

Hori guztia gutxi balitz, 18:30 aldera perkusio tailerra egingo dute. Izan ere, Senegalgo jatorria duen Kataia taldeak ikuskizun parte-hartzailea egingo du Biteri plazan. Lander Juaristi Txatxilipurdiko koordinatzaileak aurreratu duenez, gazte txoko ezberdinetatik danborrak eta bestelako materiala hartuko dituzte eta animatzen denak erritmoa eramaten ikasteko aukera izango du; hastapen ikastaro batez gozatzeko aukera izango dute, goi mailako irakasleen eskutik. Entretenezko eta, gainera, ikasteko aukera paregabea izango da, beraz.



TXOMIN MADINA

## Arrakasta zigarro puruen hitzaldian

Ez zen jendez gainezka egon, baina eguaztenean Danok-Bat elkartearen egin zen zigarro puruen gaineko hitzaldia arrakastatsua izan zen: 20 lagun inguru joan ziren martxoaren 17an 75 urte bete zituen elkarte gastronomikora. Josu Peñak zigarro puruen gaineko hainbat azalpen eman zituen eta gero dokumental bat jarri zuten ikusgai.

bere ustez



Nerea Makazaga

## Aukera bakarraren patua

Ez dut une hau fotografia-tu nahi" esaten zuen esaldiarekin jaiotzera kondenaturiko testuak, ez zuen beste aukera posiblerik behin da berriz esaldi berarekin hasiera baino. Eta hasieratik, definitio ezberdinean, irudiaren egiturak beste azal-hartze bat hartu du. Ez-nahiak eta fotografiazte unek bat egin duten tartean bertan gertatu da, begirada non pausatu ez nekien une berean. Parez parean bigarren dimentsioaren irudi lau eta txuri beltzarekin egin dut topo, eta hor arrazoiren bat

## "Arnasaldi berriari ekitean arnas-hartze gardena, eta harriduraz, beroaren dilataziorik ez"

zegoelakoan petrifikatu dut nire burua. Lau metroko distantzia laburra besterik ez bertaratzeko. Arnasaldi berriari ekitean arnas-hartze gardena; eta harriduraz, beroaren inolako dilataziorik ez. Lainoetan tinta hartutako azpi-argazki honetatik, lakua-zen zentrotik behera islatzen da argazkiaren osoa, purutasunik puruenean babes hartzeko, buruz gora zein buruz behera, beti ere, bizkarrez. Atzeko aldetik iristen zaizkit kafe makinaren hotsa eta elkarren aurka haserre egiten duten katiluen talka.

Eta itzultzen dut begirada, aurrekoz atzera, mugimendu petrifikatuan zure begiekin bat egiteko; amaiera bakarrean gonbidatzen zaitut zu, fotografiaztera.

**((112))**  
SOS DEIAK

**DELITUA** > JOSE ANGEL ARREGI, ZIGORTUTA

# Arrasaten ere ukitze kasuen berri izan da

Arrasateko San Viator ikastetxean ukitzeak egin zituela kontatu du ikasle ohi batek

**U. MADERA / T. MADINA**-ARRASATE  
Bi urteko kartzela zigorra ezarri dio Txileko justiziak Jose Angel Arregi erlijioso viatoristari, haur-pornografiatik. 2009ko abuztua ezker dago preso; horrenbestez, urte eta erdi eskaseko kondena geratzen zaio erlijiosoari.

Informazio agentziek jakinarazitakoaren arabera, 400 orduko bideo-grabazioak atzeman dizkiote Arregiri.

Bestalde, Madrilgo Instrukzio Epaitegia ere badabil Arregi ikeretzen, Hego Euskal Herriko eta Espainiako ikastetxe batzuetan 12 eta 14 urte bitarteko haurrei ustez egindako sexu abusuengatik. Horietako bi ikastetxe San Viator kongregazioak Gasteizen eta Basaurin dituenak dira. Bideo horietan sexu abusuak egiten agertzen da erlijioso viatorista.

Orain, besteak beste, Espainiako justiziak erabaki beharko du Jose Angel Arregiren estradizioa eskatu edo ez.

## ARRASATEN ERE UKITZEAK

Arrasateri dagokionez, ez dute hemengo ikastetxearekin lotutako grabazioarik aipatu. Baina haren ikasle izandako batek baino gehiagok salatu ditu komunikabideetan haren ustezko gehiegikeriak.

Goienari ere kontatu diote 80ko hamarkadan Arrasateko San Viatorren ukitzeak jasan izana: "Adibidez, gimnasioan praktikak jaitsi eragiten zizkigun, eta behin, guztioi parteak ukitu zizkigula gogoan daukat; zioen ikusi egin behar zuela 'ondo eginda' ote geunden, eta denok banan-banan ukitu egin gintuen. Eta badakit, baita ere, nire ikaskide

bat baino gehiago eraman izan zuela bere gelara (komentura); viatoristen fraternitateen arduraduna zen, eta horren kontura. Gero, bere gelan zer gertatzen zen ez dakit".

## UMEAK EZ ZIREN JABETZEN

Halako gertaerak ikasleek euren arteak komentatzen zituztela ere kontatu du ikasle ohi horrek: "Gurasoei ez, baina gure artean bai. Ni ukitu egin nau... eta hala-koak. Baina ez genuen sexu abusuaren intentziorik ikusten. Umeek ez dituzte halakoak abusu moduan ikusten. Gehiago zirudien osasun helburuekin egiten zituela ukitzeak".

Beste gertaera bat gogoan duela ere kontatu du Arrasateko ikasle ohi horrek: "Fraternitate ekintzen barruan, behin Araotzera eraman gintuen, eta kobazulo batera eraman eta esperimentu bat egin zuen gurekin: kobazuloan akelarreak-eta egiten zituztela kontatu ostean, beldur-rrak eta elkarri lotuta geundela, radiokasete batean zaratak ipintzen zituen, gure beldurra areagotzeko. Eta gero gerriko batekin bakoitzari kolpetxo bat eman zigun. Gero, radiokasetea itzungi egin zuen, eta azaldu zigun demostrazio bat izan zela hura, beldurra erabilita umeek zelan erantzuten duten erakusteko; beraz, demostratu zuen bazekielako beldurra erabilita jendea zelan gelditu mantendu. Nik uste dut horrexegatik ipintzen zela historiko, umeak beldurtzeko. Dena den, haiek beste garai batzuk ere baziren eta lehen normalagoa zen umei kolpeak ematea. Gaur egun hori egiten baduzu, salatu egiten zaituzte".



Jose Angel Arregi viatorista.

GOIENA.NET

## KONGREGAZIOA, ZALANTZAN

Viatoristen kongregazioaren papeira ere zalantzan ipini du Arrasateko ikasle ohiak: "Erlijiosoaren karrera ikusi eta gero, kongregazioak bazekien, alde batetik bestera lekualdatzen ibili direlako, batez ere: Arrasate, Gasteiz, Basauri... eta Ameriketara. Han, eskuak libreago-edo, lotura gutxiagorekin ikusiko zuen bere burua...".

Gertaerak ez dituela harritu ere azpimarratu du: "Anaiarekin komentatu dugu ez gaituela ezerk harritzen".

## VIATORISTEK EPAIA ONARTU DUTE

Arregiren kongregazioari dagokionez, zera aditzera eman diote Goienari: "Txileko justiziak egindako ikerketen arabera, Jose Angelek Internetetik haur-por-

**"Gimnasioan praktikak jaitsi eragiten zizkigun eta behin banan-banan parteak ukitu zizkigun 'ondo eginda' geunden ikusteko"**

**"Ukitzeetan ez genuen sexu abusu intentziorik ikusten; umeek ez dituzte halakoak abusu moduan ikusten"**

**"Erlijioso kongregaziotik botatzeko eskaera ekarriko luke delituren bat egin dela frogatzeak; horretan gaude"**

**Ikasle ohiak**

nografia jaitsi eta bildu egin zuen eta horren ondorioz hartutako erabakia eta ezarritako zigorra onartu egiten dugu". Hauxe ere gaineratu dute: "Kongregazioak informazio-espedientea ireki du, eta delituzko ekintzaren bat egin dela frogatuko balitz, aipatutako erlijioso hura kongregaziotik botatzeko eskaera egitea ekarriko luke. Horretan gaude".

**DRAME**  
IGARLEA - MEDIUMA

**Dozein arazo konpontzen dut, nahiz eta zaila izan:**  
maitasuna, lana, arazo familiarra...

**610 69 29 54**

**YOGA · INTEGRADO**  
CAMINO DE DESARROLLO PERSONAL

**YOGA MONITORE IKASTAROA**

**Norendako:** heziketa fisikoko profesionalak, fisioterapeutak, yoga praktikatzen dutenak eta osasun fisiko, psikiko eta emozionala hobetu nahi dutenak.

**Iraupena:** 8 hilabete (hilean 2 zapatutan)

**Lekua:** Elgeta

**Diploma-egiaztagiria**

**Informazio eta matrikulazioa:**  
675 80 18 95 | [www.yogaintegrado.com](http://www.yogaintegrado.com)

**Txitxinpe**

**Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak**

Arrasate pasealekua 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**Monte  
taberna**

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

**UGARAN**  
Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**Lore**

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

**arbolapeta**

**arbolapeta**

**beinke**

PILOTA &gt; UDABERRI TXAPELKETA

# Arrasateko pilotariek finalak jokatuko dituzte gaur

Kadete, gazte eta senior kategorietako finalak sailkatu dira Arrasateko pilotariak

Gaur, egubakoitza, gazteek eta seniorrek jokatuko dute; kadeteek, bihar

XABIER URTZELAI &gt; ARRASATE

Udaberri txapelketan Arrasateko AGT pilota taldeko ordezkariak lan bikaina egiten dabilta, kategoria gehienetan finalerako sailkatzea lortu dutelako. Baina egindako lana errematatzea falta da, gaur hasita.

Gazte mailako eta senior mailako pilotariek gaur jokatuko dituzte finalak, eta norgehiagoka guztiak etxetik kanpora izango dira. Gazteak –Beñat Arabaolatza eta Danel Etxagibel– Villabonara joango dira gaur, Urretxuren kontrako finala jokatuzera (18:30). Seniorrek –Aitzol Lazkano eta Ibai Bolinaga–, berriz, Astigarragan dute hitzordua (19:30). Senior kategorian dagoen hutsunea betetzeko, Lazkano berriro hasi da etxeko taldean pilotan, eta ondoan gorputzaldi oso onean dagoen Bolinaga izango du.

Kadete mailako finala bihar, zapatua, jokatuko dute Ikaztegietan. Norgehiagoka horretan, Arrasateko ordezkari Aitor Exezarretak eta Julen Moronek Hondarribiko pilotariak izango dituzte aurrean (11:00). Bada, esandakoa, kategoria guztietan



Bolinaga eta Agirregabiria, Albizturren, Debarroko partidu baten; gaur, Bolinagak Lazkano izango du ondoan.

GOIENKARIA

ordezkariak azkenerraino iritsi dira, eta azken ahalegina egitea geratzen da.

## ZAILTASUNAK HERRI ARTEKORAKO

Besteak beste, Udaberri txapelketan egiten dabilzan lanak erakusten du herri arteko txapelketarako Arrasatek badituela pilotari onak. Hiru urte igaro dira txapelak Arrasatera ekarri zituz-

tenetik, eta pilotari askok lanean jarraitzen dute: "Horren pena daukat, taldean pilotari onak ditugula, txapelketa oso txukuna egiteko moduko taldea izango genuke, baina gure pilotariek beste ardura batzuk ere badituzte, eta lan kontuak direla-eta euretako batzuk kanpoan dabilta, edo min hartuta daude", adierazi du taldeko ordezkari Zubi-

llagak. Atzetik pilotari gazte oso onak datoz, eta Markel Moron da haietako bat: "Moronek Zizurko txapelketako finala jokatu du zapatuan. Azken orduan gonbidatu zuten, egun batetik bestera jokatu behar zuela esanez, eta ikustekoa izan zen zelako finalurrerokoa jokatu zuen (18-7). Moronekin batera pilotari oso politak datoz atzetik".

## Zaldibar

### EMAITZAK

Dublin-Cipris	1-0
Dribling-Lasagabaster	2-2
Betrayer-Iritzu	4-4
Iluntz-Abokajarro	1-3
Komando Alpagat-Steaua del Grifo	6-3
AT Celaya-Fidel & Disc	8-2

### PARTIDUAK

<b>Martxoak 27, zapatua (kopa)</b>	<b>EPAILEAK</b>
<b>10:00</b> Lasagabaster-Komando Alp.	<b>Antolat.</b>
<b>11:30</b> Ekaitz-Aldapa (liga)	<b>Lasagabaster</b>
<b>12:30</b> Betrayer-Cipris	<b>Antolatzaileak</b>

### SAILKAPENA

	P	J
1. Dublin	36	13
2. Dribling	32	13
3. Iritzu	29	13
4. Betrayer	27	13
5. AT Celaya	26	13
6. Abokajarro	26	13
7. Lasagabaster	21	13
8. Cipris	16	13
9. McAwenDauen	15	12
10. Fidel&Disc	15	13
11. Ekaitz	13	12
12. Aldapa	9	12
13. Iluntz	5	13
14. Katenatxio	4	12
15. Komando Alpagat	2	13
16. Steaua del grifo	0	13

## Kopa txapelketako finalerdiak eta ligako partidu bat jokatuko dituzte bihar

Oraingo asteburuan hiru partidu baino ez dituzte jokatu Zaldibarren, hasteko, Kopako finalerdiak egongo direlako bihar, zapatua, jokoan. Kopako finalerdi horietan txapelketako antolatzaileak ibiliko dira epaile lanetan, baina adi, tartean ligan atzeratutako norgehiagoka bat jokatuko dutelako Ekaitzek eta Aldapak. Eta hori Lasagabasterrek epaituko du.

XAKEA &gt; GIPUZKOAKO LIGA

## Arrasate San Andres puntu erdigatik ez da igoko

Euskal Ligara igotzeko borrokan ibili dira eta azken jardunaldian ihes egin die igoerak

X.U. &gt; ARRASATE

Gipuzkoako ligan hiru urte egin eta gero, Arrasateko mutilek helburua 2007an galdutako Euskal Ligako kategoriara itzultzea zen. Horretarako, baina, lanean jarraitu behar dute, puntu erdiko aldegatik Grosek lortu duelako igotzea.

Arrasateko mutilek lan ona egin zuten azken jardunaldian, 3,5-0,5 hartu zutelako mendean Villabona. Igoerako bidea, bai-

na, joan den astean okertu zitzaizen Idiazabalen etxean 2,5-1,5 galduta. Etxekoek zailtasun handiak izan zituzten ohiko taldearekin jokatuzeko, eta, jokalarri faltan, beheko kategoriako xakelariengana jo behar izan zuten. Emaitza horrek derrigor-tu egiten zituen azken jardunaldi perfektua egitera (4-0), baina, aurreratu dugun moduan, puntu erdik zapuztu zituen plan guztiak.

&gt; SASKIBALOA

## MUK Easoren kantxan jokatu du zapatu ilunkeran

Jaitsiera faseko lehenengo garaipena eskuratu zuten MUKo mutilek joan den astean. Eta garaipen horrek ematen duen indarrarekin abiatuko dira bihar Easoren kantxara (Donostia, 20:00).

Zapatuko garaipenarekin MUK sailkapenean ez du aurrerapen handirik egin, baina talde asko daude bospasei garaipen batuta, eta multzo horretan daude Arrasatekoak ere. Hala, joan den astean MUK jaitsiera postuak ekiditeko kontrario zuzen Legarzia hartu zuen mendean, eta biharko norgehiagokan ere beste horrenbeste, sailkapeneko azken lau lekuak atzean uzteko aukera.

&gt; ESKUBALOA

## Ligako azken partidua jokatu du Ford Mugarrik zapatuan

Joan den asteburuan jokatu du bi partiduak ahaztu eta liga zapo-re gozoarekin amaitzeko norgehiagoka izango dute Ford Mugarri Arrasateko mutilek bihar Iturripen (18:00).

Etxekoak iritsi dira liga amaierara, azken partidua izango da-eta jokoan. Hori bai, lehian ez da askoz gehiago jokoan egongo, Arrasatekoek dagoeneko agur esan diotelako igoera fasea jokatuzeko aukerari, eta Urolak aspaldi galdu zuelako kategoria –sailkapeneko azken tokian daude–. Hori bai, liga hirugarren amaitu nahiko dute Orgazen mutilek, laugarren dagoen Askartza puntu batera baino ez dago-eta.

&gt; ERRUGBIA

## Seniorrek atsedena izango dute, eta gazteek Durangon jokatu dute

Joan den astean Atletico San Sebastian taldearen kontra 5-32 galdu eta gero Igor Isasiren mutilek atsedena izango dute oraingo asteburuan. Hala, badirudi atsedenaldira uneri onenean datorrela, Arrasateko taldean jende asko dagoelako min hartuta –azkeneko norgehiagokan hamabost jokalarri baino ez zituen izan eskura Isasik.

Gizonetakoekin batera, emakumezkoek ere atsedena izango dute; joan den astean La Unica-ren kontra 24-20 irabazi ostean, merezitasko deskantsua. Hala, gazte mailako mutilek izango dira lan egingo duten bakarrak, Durangoren zelaian.



Urduri baina ilusioz ibili dira DBHko 1. zikloko ikasleak taula gainean.

GOIENKARIA

**HEZKUNTZA** > ESKOLA ANTZERKI JARDUNALDIAK

## Amaia antzezle gaztez bete zenekoa

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Herriko ikasleak antzezle lanean ibili dira egunotan. Hain zuzen, martitzenean eta eguaztenean egin zituzten antzerki jardunaldiak Amaia antzokian.

Hezkuntza Sailak Kultura Sailarekin elkarlanean antolatutako jardunaldiak izan dira. Sasoi baten antzerki talde profesionalen bakarrak egiten zituzten jardunaldiok; baina orain, ikas-

tetxeetako gaztetxoek ere parte hartzen dute. Gainera, Amaia baliabideak aprobetxatuta, gaur egungo formatuetara egokitu dituzte antzezlanak gaztetxoek.

**PROFESIONALAK, APIRILEAN**

Apirilaren 21ean Malas Pulgas taldeak *Cyrano* lana taularatuko du; apirilaren 27an Markeliñek *Uharte ezezaguna*; apirilaren 29an Pikor teatrotik *Sarebegian*; eta maiatzaren 4an Deabru Beltzak *A,e,i,o,u* lana. Emanaldiak ikasleentzat izango dira.

**KONTZERTUA** > 3 ARETOA

## 'Love & destruction' abestien aurkezpena

Bitter Honey taldeak gaur aurkeztuko du 'Songs of love & destruction' diskoa 3 aretoan; ondoren, Cool Circus taldeak joko du

**A.E.** > ARRASATE

Bitter Honey talde arrasatearrak lehen lana aurkeztuko du etxean, Arrasaten. Gaurko jaialdi polita antolatuko dute 3 aretoan; agertokira, Bitter Honey taldeaz gain, Cool Circus arrasatearrak ere igoko dira, 22:00etan hasita. Sarrera 2 euro kostako da.

**LEHEN LANA**

Bitter Honeyk hard rock klasiko egiten duen arren, *Songs of love & destruction* disko berria hainbat influentzia nabari daitzake. Izan ere, argi geratzen da arrasatearrek Led Zeppelin, Grand Funk Railroad, Black Sabbath, The Who eta Motorhead talde mitikoetatik edan dutela. "Gure lehen lana izateko, oso gustura geratu gara egindakorekin. Disko sendoa da", adierazi digu Aitor Agirre taldeki-

deak. 2008an eman zuten lehen kontzertua eta harrezkero ez dira gelditu. 2009ko maiatzean Urdulizko Tio Pepe estudioetan grabatu zuten diskoa.

Dagoeneko salgai dago diskoa. "Erantzun ona izan du zaleen artean; esan digute soinu ona daukala, eta baita presentzia ere", dio Agirrek. Gainera, kontzertuan bertan salgai egongo da *Songs of love & destruction* lana 5 euroren truke: "Kontzertua eta diskoa 7 euroren truke izan dezakete!" dio, barrez, Agirrek. Diskoko abestiez gain, bertsioaren bat joko dute gaurko kontzertuan, baina sorpresa dela esan digute.

**COOL CIRCUS**

Cool Circus boskote arrasatearrak joko du Bitter Honeyren aurretik. Kontzertua 23:00etan hasiko da, 3 aretoan.

**MUSIKA** > INTERNET

## Anger taldearen 'Sedukzioaz' lana sarean dago

2009ko abenduan aurkeztu zuten arrasatearrek 'Sedukzioaz' lana; hamar abestiz osatutako diskoa da

**A.E.** > ARRASATE

Arrasatearrek sarean jarri dute, edonoren eskura, *Sedukzioaz* euren azken lana. Diskoa [www.angerweb.net](http://www.angerweb.net) helbidetik jaitz daiteke. Abenduan aurkeztutako diskoa hamar abestiz osatuta dago; guztiak, euskaraz.

"Lehenengo aldia da gure lana sarean jartzen duguna. Helburua da diskoa norena den adierazita edonori uztea, doan. Gainera, azkeneko lanaz gain, aurreko maketak ere jarri ditugu sarean", adierazi digute Anger taldeko kideek. Diskoak *copyleft* marka dauka.

**ERANTZUN ONA**

Taldeakideak pozik daude abenduan Durangoko azokarako ate-

ra zuten lanak zaleen artean izan duen erantzunarekin; orain, zuzenean, diskoa aurkeztu dabilta.

Gaur, egubakoitza, Ugaoko herriko tabernan joko dute, 22:30ean. Bestalde, apirilean bi emanaldi egingo dituzte gurean: apirilaren 16an, Musakolako gazte txokoan joko dute, 19:00etan; eta apirilaren 17an, zapatua, Elgetako Espaloian joko dute, 22:00etan, Gose taldearekin batera.



A.E.

## Harkaitz Cano bibliotekan izan zen eguaztenean

Udal Bibliotekak antolatzen dituen solasaldien barruan, Harkaitz Cano idazlea izan zen eguaztenean Kulturaten. *Zinema eta literatura* liburuaz jardun zuen Canok. Bibliotekara joandakoek gustura entzun zituzten idazlearen xehetasunak. Datozen hilabeteetarako solasaldiak hauek dira: apirilaren 28an Aingeru Epaltzaren *Tigre ehizan*; maiatzaren 26an *Ez da erraza gizon bat aurkitzea*; eta ekainaren 16an *Euskaldun guztien aberria*. Mikel Aierbek koordinatzen ditu solasaldiak eta 18:30ean dira.

### ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



Gorka Aguinagalde  
**El txou de Patxi**

**Gaur Martxoak 26**  
00:00etatik aurrera

**IAMAIAANTZOKIA**  
ARRASATE



Seminarioko jolaslekuan hegaztiak eta animalia bitxiak ikusteko aukera egongo da, baita nekazaritzako makineria ere.

GOIENKARIA

JENDARTEA &gt; AZOKA

# Erramu-zapatua mahoiz ospatzeko dei egin dute

Azoka 09:30ean irekiko dute eta ganadua erekin batera bertoko jakiak izango dira protagonista

**MONIKA BELASTEGI > BERGARA**  
Bihar, Erramu-zapatuko feria izango da eta udal langileak erakusmahaiak atontzeko azken ukituak ematen ari dira. Goizean feria izango da nagusi; eguerdian, herri bazkaria -txartelak oraindik badaude-; arratsaldean, zezentxoak; eta gauean, musika. Egun borobila. Hala ere, gaur, egubakoitza, ere badira ekitaldiak: pirenaika arrazaren gaineko hitzaldia eta bertso jaialdia.

## POSTU UGARI

Erdigunea hartuko du feriak: Ibargarai kalean ganadua egongo ikusgai eta baita txorimalo lehiaketako lanak ere; Seminarioko jolaslekuan hegazti eta animalia bitxiak egongo dira eta baita Aranzadi ikastolak kudeatuko duen talo postu bat ere; San Martin plazan artisauak egongo dira; Muniben, Luma Gorri oilas-

koen postua -Beti Bustik kudeatuko du-; Simon Arrietan eta Fraiskozurin bertako ortuko produktuak eta jakiak egongo dira.

## ZIRKULAZIOAN ALDAKETAK

Azokak hainbat aldaketa eragingo ditu zirkulazioan: Ibargarai itxita egongo da lur azpiko aparkalekutik Miguel Altunaraingo. Eta kanpotik datorren zirkulazio-arendako, palmondoan dagoen biribilgunetik egongo da itxita Ibar-

garai. Atera, berriz, Zurraderotik aterako da zirkulazioa. Pesako autobusak ez dira herri barrura sartuko; hortaz, Ibargarai 7ko eta Oxirondoko geltokiak zerbitzutik kanpo geratuko dira. San Lorentzoko geltokia Mutualia-aren aurrean egingo da. Urbanoaren kasuan, palmondoan dagoen biribilguneraino iritsiko da eta Matxiategi aldera joateko, palmondoan buelta hartu eta saihesbidetik joango da. Beste aldeko ibilbidea Zurraderotik egingo du.

Aparkalekuei dagokienez, bereziak antolatuko dituzte Martinez de Irala eta San Martin ikastetxeetako jolasleketan.

EKIMEN BERRIA

## 12-14 urtekoendako jaialdia Zabalotegin

Udalak 12-14 urte artekoendako jaialdia antolatu du biharko, Erramu-zapatua, Zabalotegi aretoan, Gazteria Kontseiluan parte hartzen duten adin tarte horretako gazteen proposamena aintzat hartuta. Fer disko jartzaileak musika jarriko du 19:00-22:00 bitartean eta gaztetxoak dantza egiteko aukera izango dute. Lehen jaialdi horrek ondo funtzionatu zuten gero, eskaintza finko moduan antolatuko asmoa du Udalak.

## Egitaraua

### 26, egubakoitza

19:00 Hitzaldia: *Pirenaika arrazaren lehena, oraina eta geroa*. Osoko bilkuren aretoan.

22:30 Bertso jaialdia, Udal pilotalekuan. Parte-hartzaileak dira: Jose Uria, Julio Soto, Joxe Agirre, Iker Zubeldia eta Uxue Alberdi. Gai-jartzailea: Jardun elkarte.

### 27, zapatua

09:30 Feria irekiko dute; abelburuak, hegaztiak, Eusko Labeleko produktuak, makineria eta artisauak. Bergarako trikitilariak, joaldunak eta txaranga ibiliko dira goiz osoan.

11:00 Euskal oilaskoen dastatzea (Luma gorri), Munibe plazan.

12:00 Erakusketako behien ikustaldi gidatua, Miguel Altuna institututik hasita.

12:30 Txorimalo erakusketa eta sari ematea, Jardunek antolatuta.

Gero, trikitilarien kalejira eta saioa, Ibargarai kalean.

13:00 Ernesto Ezpeleta *Bihurri* aizkolaria erakustaldia, Irala kalean.

14:30 Herri bazkaria, Udal pilotalekuan.

17:30 Umeendako zezentxoak, Seminarioko jolas lekuan.

19:00-22:00 12-14 urte arteko gaztetxoendako jaialdia, Fer disko jartzailearekin, Zabalotegi aretoan.

22:30 Kontzertua, Munibe plazan.

## EUSKARA

# Olinpiadak antolatu ditu Jardunek gazteentzat

M.B. &gt; BERGARA

Aurten ere gaztetxoendako olinpiadak antolatu ditu Jardun euskara elkarteak. Lehen Hezkuntzako 4, 5 eta 6. mailetakoei zuzenduta daude eta izango dira apirilaren 24tik maiatzaren 15era arte, zapatu arratsaldeetan. Zapatu bakoitzeko hainbat proba egingo dituzte parte-hartzaileek eta olinpiaden bukaeran oparia jasoko dute irabazleek. Gainerako parte-hartzaileen artean ere opariak zozkatuko dituzte. Taldeek gutxienez sei lagunekoak izan beharko dute eta gehienez zortzikoak. Izematea zabalik dago eta azken eguna da apirilaren 16a, Jardunen bulegoan edo 943 76 36 61 zenbakian.

## ERAKUSKETA

# Gerran hildakoen duintasuna helburu

M.B. &gt; BERGARA

*Hildakoak hilobietatik ateraz, duintasunak berreskuratuz* delako erakusketa irekiko dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan. Aranzadi Zientzia Elkarteak antolatu du erakusketa eta helburua da Espainiako gerrako biktimen duintasunaren alde egitea. Erakusketa ikusgai egongo da apirilaren 18ra bitartean.

Horrekin batera, apirilaren 14an, *Oroimen historikoa* delako hitzaldia egingo du, 19:00etan, Lourdes Herrastik, Aranzadi Zientzia Elkarteko Antropologia Saileko kideak.

**sane**  
fisioterapia zentroa

Ane Remedios Sanchez  
Ane Coranti Gabilondo

Ibargarai 35  
20570 Bergara  
Tel.: 943 25 24 40

- Errehabilitazio uroginekologikoa eta biszeral-digestiboa.
- Tratamendu traumatologikoak.
- Erditze aurreko prestaketa.
- Erditze osteko errekuerazioa.
- Gimnasia abdominal hipopresiboa (GAH).
- Etxez etxeko fisioterapia.



**%10eko  
DESKONTUA\***  
txartel hau aurkeztuz gero.

\*Baliogarria maiatzaren 28 arte.

JENDARTEA > ERRETIRATUAK

# Film emanaldiak egingo dituzte San Joxepen

Horixe da aurtengo duten asmoetako bat; eta bazkide kopurua handitu egin nahi dute

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Eguazten arratsaldean urteko batzarra egin zuten San Joxepe erretiratuen elkarteko kideek. Ohi bezala, 2009ko balantzea egin zuten eta 2010eko asmoen berri eman.

**BALORAZIO POSITIBOA**

San Joxepeko zuzendaritzako ordezkarien esanetan, "iazko jardueretako emaitzak oso onak izan ziren, bai ospakizunetan, bai jokotan, bai bidaia kulturaletan zein mendi irteeretan. Horrez gain, egoitzan egin ziren yoga, pintu-

ra, eskulan... eta halako jardueretako emaitzak ere onak izan ziren". Horien artean, bereziki informatika ikastaroak azpimarratu zituzten, 300 ikasleekin. Bestalde, aipatu zuten ile-apaindegi, podologia, taberna eta jantoki zerbitzuek ere ondo funtzionatu dutela.

Aurtengo asmoetako bat da egoitzan zinema emanaldiak egitea. Dagoeneko prest dute proiektorea, baina gela atontzea falta da: "Lehen solairuko gelan egokitu dugu, baina altzariak falta dira; Udalean egin dugu eskaria, eta

erantzunaren zain gaude". Horrekin guztiarekin, filmak ahalik eta azkarren ematen hasi nahi dute, eta baita bingoa ere, gela berean egingo dute eta.

**ZUZENDARITZAKO KIDE BERRIA**

Batzarrean zuzendaritzako kide berria izendatu zuten: Beatriz Larrañaga. Hiru izendatzea tokatzen zen arren, inork gehiagok ez du bere burua aurkeztu eta kargua berri egin dute Mari Carmen Otaolak eta Jose Ignacio Beristainek. Horren haritik, zuzendaritzak dei egiten die bazkideei jarduerak antolatzen parte hartzeko. Era berean, bazkide egin nahi duten erretiratuei ere dei egiten diete.



Arrondo elkarteko presidentea udal ordezkariekin.

MONIKA BELASTEGI

POLITIKA > DEIALDIA

# Etxeko balkoian ikurrina zintzilikatzeko eta Aberri Egunean parte hartzeko dei egin dute

'Nazioa gara, estatua behar dugu!' lelopean Irun eta Hendaia artean egingo den ibilbidea egiteko gonbita egin dute

M.B. > BERGARA

Apirilaren 4an ospatuko den Aberri Egunean parte hartzeko deialdia egiteko agerraldia egin zuten martitzenean hainbat esparrutako herritarrek. Bi gonbit egin zituzten: Aberri Egunean *Nazioa*

*gara, estatua behar dugu!* lelopean Irun eta Hendaia artean egingo den ibilaldian parte hartzeko, batetik; eta bestetik, etxeetako balkoietan ikurrina zintzilikatzeko. Horren haritik, ikurrinak salgai jarri dituztela aurreratu zuten, 6 euroren truke, leku hauetan: Pol-Pol, Bolu eta Arrano tabernetan, Bolu eta Konde Panaderokua okindegietan eta bihar, Erramu-zapatua, plazan jarriko duten postuan.

**ESTATUA ALDARRI**

Apirilaren 4an, batik bat, estatua aldarrikatuko dutela ekarri zuten

gogora martitzeneko agerraldian: "Munduaren aurrean euskal herritar gisa, nazio libre bateko partaide gisa agertzeko, estatua behar dugu", esan zuten. Eta gehi-

tu zuten: "Euskaraz bizi izateko, gure ohiturak ez galtzeko, hezkuntza sistema propioa izateko, kirol eta hezkuntza sistema propioak izateko, aniztasuna oinarri duen

nazioa eraikitzeko... estatua behar dugu". Gainera, bide hori "euskal herritar guztien artean" egin behar dela ere azpimarratu zuten, "batzen gaituenari helduz".



Hainbat esparrutako herritarrek batu ziren Usondo parkean egindako agerraldian.

MONIKA BELASTEGI

- Eguneko menua.
- Afariak aste bukaeretan.
- Pizzak.
- Terraza.
- Domeketan ere zabalik eta pizzak enkarguz eroateko.

**ZUHAIZTI**

*Izarra eta konpainia, zuen zerbitzura!*

Espaloia 6 Bergara 943 76 59 22

**Kabutzia**

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

**BERGARA**  
MARMOLERIA  
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

**SANTOS**



Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA  
Tel.: 943 76 26 10

BERTSOAK &gt; SAIOA

# Erramu-zapatuko bertso saioa egingo dute gaur pilotalekuan

Jone Uria, Julio Soto, Joxe Agirre, Iker Zubeldia eta Uxue Alberdi izango dira gaur, 22:30ean, taula gainean

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Jarduneko ordezkariak eta Bergarako bertso eskolakoak *lanean* izango dira gaur Bergarako pilotalekuan. *Lanean*, goian aipatutako bertsolarien aurrean gaitzartzaile jardunean ibiliko direlako, baina neurri berean baita gozatzen ere. Gozatzen eurek proposatutako gaien aurrean bertso-

lariak ze norabide hartzen duten ikusten, eta bertsoak entzuten.

Iazko saioarekin alderatuta agerikoa da gaur Bergarako egongo diren bertsolariak ez direla horren ezagunak, iaz besteak beste Unai Iturriagaren, Amets Arzallusen eta egun txapelaren jabe den Maialen Lujanbioren bisita izan genuelako. *Txapeldunen ligakoak* ziren horiek, baina Jone Uria (Algorta, 1990), Julio Soto (Gorriti, 1987), Joxe Agirre (Azpeitia, 1929), Iker Zubeldia (Zegama, 1981) eta Uxue Alberdi (Elgoibar, 1984) ere puntakoak dira, eta askotan izenarekin bakarrik ez da saio borobila ateratzen.

Iazko saioak harrera ona izan zuten, eta giro polita egon zen pilotalekuan; gaurkorako ere bes-

te horrenbeste espero dute (22:30, sarrera bost euro).

GAZTEAK, NAGUSIEN KONTRA

Gaurko saioari Joxe Agirre *beteranoak* jarriko dio piperra eta baita umorea ere, bere generaziokoak ez diren gazteak izango dituzte eta pilotalekuko taulagainean ondoan. Seguru gai-jartzaileek hortik tira egingo dutela, lehen-goia eta oraingoa, alegia. Azpeitiarrak, baina, bertso txapelketako finalean erakutsi zuen 81 urterekin ere sasoiko dagoela, taulagainera igo eta ez zuelako handik jaisteko presarik. Horrenbestez, hobe dute laurogehiko hamarkadan jaiotako bertsolariak argi ibili, *zaharrak* oraindik badu-eta zer abestu.



Soraluce BKEk etxetik kanpora hasiko du igoera fasea.

GOIENKARIA

ESKUBALOIA &gt; LEHEN TERRITORIALA

## Igoera faseko lehen partidua Donostian jokatu dute bihar

Jose txo Muniategiren mutilek ligan lehena izan den Egia izango dute kontrario, 17:30ean

X.U. &gt; ARRASATE

Liga amaitu, igoera faserako sailkatu eta atsedean hartzeko astirik barik hasiko dute Jose txo Muniategiren mutilek hamar partidu izango dituen igoera fasea. Bihar izango dute lehenengo hitzordua, etxetik kanpora, Gipuzkoako ligan onena izan den Egiaren kantxan (17:30). Bergarako entrenatzaileak, baina, argi dauka Gipuzkoako multzoan Soraluce BKE taldearen aurretik sailkatu diren Egia eta Elgoibar ez direla eurak baino gehiago. Gero,

ikusit egin beharko da Arabatik (Corazonistas) eta Bizkaitik (Deusto loiola eta Trapagaran) sailkatu diren ordezkariak ze maila ematen duten.

DATUEK DIOTE BAIETZ

Hala, Muniategiren usteak ez dira oso okerrak, Egia Bergararen aurretik sailkatu bada ere ligan jokatu dituzten bi partiduetako batean ere ez direlako donostiarrak gehiago izan. Labegaraietan 31-31 egin zuten, eta Donostian mahoneroek ezustea eman zuten (28-29).

&gt; ARETO FUTBOLA

Labegaraietako azken jardunaldian erabakiko da, domekan, nork irabaziko duen txapelketa

Oraingo asteburuan jokatu dute Labegaraietako txapelketako azken jardunaldia -domekan partiduak amaitu ostean sari bana-keta eta kopako zozketa egingo dute-, eta oraindik jokoan dago lehenengo postua. UD Akabaoak (54) dago lider, baina CM Errota-gain (52) taldeak jardunaldi bikoitza izango du.

Akabaoak taldeak zapatuan jokatu du (21:00etan, barruan) eta ordurako jakingo dute Errota-gainek zer egin duen asteburuko lehen partiduan (Errota-gain-Zigalikatis, 20:00). Domekan, berriz, Errota-gain taldeak goizeko lehenengo orduan (09:30) jokatu du bigarren partidua, Niu Timen kontra. Tarte laburra izango dute partidu batetik bestera errekupeartzeko.



BERGARAKO ORFEOIA

## Bergarako Orfeoia, ondo Katalunian

Bergarako Orfeoiko kideek bi kontzertu egin zituzten joan den asteburu luzean Katalunian. Egubakoitzean Santa Coloma de Queralt-en abestu zuten, herri hartako orfeoia iaz Bergarara egindako bisitaldia bueltatuta. Zapatuan, berriz, Bartzelonako Cor de Cambra Ars Animae taldearen gonbita onartzuz, emanaldia egin zuten eurekin. Hala, talde hori lehenago edo geroago ikusiko dugu Bergaran.

Egindako kontzertuekin pozik itzuli ziren bergararrak; gainera, Bartzelonako toki interesgarriak bisitatzeko gidari ona izan zuten: taldeko zuzendaria. Amaitzeko, Bergarako orfeoiko presidente Karlos Etxanizen esanetan, abestea atsegin duenak orfeoiko ateak zabalik daude.

MUSIKA &gt; KONTZERTUAK

## Orfeoia antolatuta bi emanaldi, eta biak elizan

Udaberriko kontzertua egingo dute gaur, 19:30ean

X.U. &gt; BERGARA

Oraingo asteburuan Bergarako Orfeoia antolatutako bi emanaldi izango dira Mariaren Lagundian. Emanaldiok, baina, erabat ezberdinak izango dira.

Gaur, 19:30ean hasita, Orfeoiko haur eta gazteen Udaberri kon-

zertua egingo dute. Bergarako Orfeoiko talde guztiek parte hartuko dute kontzertu horretan: Orfeoi Txikitxoak, Orfeoi Txikik eta Gaberok. Hiru taldeak bana-kara arituko dira, eta amaieran denek batera egingo dituzte bi abesti. Zuzendari lanetan Aitor

Biainek jardungo du, eta pianoan izango da Anabel Henao.

GANBARA ETA GABERO

Domekan (19:00), berriz, Ganbara eta Gabero abesbatzek kontzertua egingo dute, Mariaren Lagundian baita ere.

Kontzertu horretan, musika erlijiosoari klasiko itxura kendu eta XXI. mendean idatzitako abesti moderno eta kuriosoz egingo dute emanaldia. Abestuko dituzten obra guztiak erlijiosoak dira, baina jazz, rock, soul... estiletan. Oñatin arrakasta izan zuten. Sarrerak doan izango dira.



Gosari bereziak  
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitarkeak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak





# Ondo pasa Erramu-zapatuan!

Agorrosin • Ariznoa • Avenida • Azpeitxi • Etxagi  
Euxebio II • Iraho • Irish Pub Galways • Kai  
Kaixo • Pol Pol • Sirimiri • Toki Ona • Usoa • Zunbeltz

MERKATARITZA &gt; EKIMENA

## Kultura ekitaldiak sari izanda merkataritza bultzatuko dute

'Merkataritza kulturari blai' ekimena Udalak jarri du abian eta 37 merkatarik onartu dute; puntuak banatzen hasiko dira gaur, gero sarrerengatik trukatzeko Arkupen

MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABALETA

Eguaztenean aurkeztu eta gaurtik aurrera abian da *Merkataritza kulturari blai* ekimena. Herriko merkataritza suspertzeko asmoarekin kulturarekin uztartu du Udalak, eta Kutxaren laguntza jaso du horretarako. 37 merkatarik egin dute bat proposamenarekin; besteak beste, opari-dendek, jantzi-dendek, iturgintzek eta ile-apaindegiek.

Gaur hasi eta urtea bukatu bitartean puntuak banatuko dituzte 37 denda horietan: 30 eta 50 euro arteko erosketagatik, 2 puntu; 50 eta 75 euro artekoagatik, 3 puntu; eta 75 eurotik gorakoagatik, 4 puntu. Horiek gero Arkupeneko ikuskizunetarako eta zinema emanaldietarako sarrerengatik trukatu ahal izango dituzte herritarrek: umeendako ikuskizuna eta zinema komertziala, 8 puntu; zinekluba, 6 puntu; eta gainerako ikuskizunak, 4 puntu.

Horrez gain, hiru hilabeteen behin 40 euroko bi txartel zozketatuko dituzte, gero 37 denda horietan erabiltzeko. Eta Kutxak, berriz, beste zozketa bat egingo du erosketak Kutxaren txartelarekin ordaintzen dituzten artean; bazkariak eta afariak zozketatuko ditu.

ARETXARTE

### Martxoko zozketa

Aretxarte merkatarien elkarteak, ostera, hilero egingo ditu zozketak eta martxoan banatutako zenbakiekin gaur egingo du. Hil honetako saria Baster-Alde jatetxean bi lagunendako afaria da.

Apirileko zenbakiak banatzen hasiko dira gero Aretxarteko merkatariek eta saria izango da Zumaiako talasoterapiaren egun-pasa: bazkaria, zirkuitua eta masajea.



Ekimenarekin bat egin duela dioen pegatina jartzen Aintzane Aizpurua.

M.A.

UDALA &gt; PARTE-HARTZE PROZESUA

## Kirol etxeko berdegunearen azken saioa

M.A. &gt; ARETXABALETA

Kirol etxe aurrean dagoen berdegunean zer egin erabakitzeko abian jarritako parte-hartze prozesua bihar bukatuko dute. Hirugarren eta azken saioa egingo dute Arkupen (10:00-12:00), eta orain arte agertutako proposamen guztien artetik bakararra hautatu beharko dute.

KALITATEZKO EKARPENAK

Kudeatuz egitasmoaren barruan dago berdegunearen parte-hartze prozesua eta 30 bat lagun egon dira aurreko bi saioetan; batzuk elkarrekin ordezkariek, beste batzuk interesa agertutako herritarrek.

Lehen saioan proposamenak bota zituzten: kirolgunea eta jolasparkea; errekan putzua eta berde-

gunea; kanpoko igerilekua; parke botanikoa; aparkalekuak... Kalitatezko ekarpenak izan zirela aipatu zuen alkateak orduan. Bigarren saioan, proposamen baloratu egin zituzten Hirigintza eta Kirol teknikariek ikuspuntu teknikitik. Eta bihar, adostasuna lortu eta bakarria hautatu beharko dute guztien artean.



### Mitartegarai

Baserri turismoa eta taberna

- Batzar gela.
- Jangela.
- Logelak.
- Etxeko produktuen salmenta.



Areantza auzoa ARETXABALETA Tel.: 943 79 17 51

HEZKUNTZA &gt; ELKARTRUKEA

## Herbehereetan eman dute astea Kurtzebarriko ikasleek

Euskal kulturaren berri eman diete Europako hainbat herrialdetako ikasle eta irakasleei

M.A. &gt; ARETXABALETA

Kurtzebarri institutuko laugarren mailako ikasleak Herbehereetan izan dira astean. Cuijk herriko Merlet College institutuko hainbat ikaslerekin pasatu dituzte egunok eta gaur itzuliko dira.

Elkartrukea udazkenean hasi zuten, orduan etorri zirenetan Herbehereetako ikasleak gurera, Euskal Herria ezagutu eta elkarlanari ekiteko. Orain, aretxabaletarrak joan dira Cuijk herrira, bisita itzuli eta elkarlanean hasitako proiektuari bukaera emateko.

INGELESA ETA ELKARBIZITZA

Merlet College ikastetxeak koordinatzen duen Nazioarteko Astea izeneko proiektuaren barruan dago ikasleen bisita. Europako hainbat herrialdeetatik etorritako ikasle eta irakasleek euren bizipenak, ikuspuntuak eta kultura adierazpenak trukatu dituzte egunotan, ingelese eta elkarbizitza ardatz hartuta. Hala, euskal kulturaren gaineko tailerrak -Aretxabaleto ikasleek prestatuak-; kultura arloko bisitak -museoak, parkeak...-; eta kirol ekin-tzak egin dituzte.



Herbehereetako ikasleek gurera egindako bisita.

KURTZEBARRI INSTITUTUA

&gt; OSPAKIZUNA

### Hiruatzetik buelta eta bazkaria presoak gogoan dituztela

Presoen aldeko mendi martxa izenarekin egun osoko ospakizuna egingo dute bihar, hilak 27. Mendi ibilaldiarekin hasiko dute eguna (09:00): Mitarte plazatik irten eta Hiruatx ingurura joango dira. Ondoren, salda hartuko dute Areantzako Mitarte Garai baserrian (12:30). Eta bazkaria Urbaltz elkartean egingo dute. Arratsaldean trikitilariak izango dituzte lagun kalean eta bukatzeko elkarretaratzea egingo dute.

&gt; GAZTEAK

### Elantxobera joateko izenemate epea zabalik dago domekara arte

Pazko astean zabalik egongo da Atxagazte gaztelekua eta hainbat ekintza egingo dituzte: apirilaren 6an, eskulanak; 7an, afari-merienda; eta 8an, ping-pong eta mahai-futbol txapelketak.

Apirilaren 9tik 11ra, ostera, irteera egingo dute Elantxoberako aterpetxera. 12 eta 14 urte artekoendako antolatu dute eta Eskoriatzakoekin joango dira. Izenemate epea zabalik dago domeka arte, gaztelekuan bertan. Kostua 35 euro da.

# Ezkontzak

Egubakoitza / 2010eko martxoaren 26a / **Arduraduna:** Leire Kortabarria / **Maketazioa:** Oxel Arrieta, Imanol Soriano

GARRAIOA ETA OSTATUA

•  
GONBIDAPENAK

•  
JOERAK

•  
JATETXEAK

•  
EZKONBIDAIK

•  
ESTETIKA

•  
ETXE APAINKETAK



ARGAZKILARIA: LUIS HERNÁNDEZ


logotipoak • tarjetak • egutegiak • ezkontzak • jaunartzeak • menuak • kartelak • katalogoak • pegatinak...



## EZKONTZA GONBIDAPEN BEREZIAK

KOHn zure gustuen arabera  
diseinu pertsonalizatuak egiten ditugu

*zatoz eta ikusi*



**DISEINU** grafikoa  
inpresio **DIGITALA**

KOH • 943767320 • Barrenkale 42 • BERGARA • [www.kohdiseinua.com](http://www.kohdiseinua.com)

## ■ GARRAIOA ETA OSTATUA

# Eguna bikain amaitzeko, hotela edo landetxea

NEREA MENOR

**E**zkontzetan, ospakizun guztietan bezala, jan bapoen egiten dugu, baita edan ere. Halakoetan autoa hartzea ez da oso ideia ona izaten eta horretarako autobus zerbitzua kontratatzen dute ezkongai askok; baita ostata ere, parrandaren ondoren etxeraino gidatu behar ez izateko.

Ezkontzak benetan neketsuak izan ohi dira. Aurrena ile-apaindegira joan behar da, gero janztera; elizkizuna edo zeremonia zibila, elizatik edo udaletxetik jatetxerako bidea, eztei bazkaria... Etengabe gora eta behera mugitu behar izaten dute egun horretan bikoteak eta gonbidatuek; halakoetan ez dator batere gaizki laguntza apur bat, eta horretarako ditugu garraio enpresak eta ospakizun osteko ostata.



Ezkontza osteko gaua une berezia izan ohi da ezkonberrientzat.

GOIENKARIA

## Masajeak eta halako zerbitzuak eskaintzen dira ostatu batzuetan

### "AUTOBUSEAN MUGITUKO NAIZ"

"Elizara, jatetxera, pubera parranda jarraitzera, argazkiak ateratzera... nahi duten lekura eramaten ditugu bidaiariak", diote Leintz Garraiokoek. Euren ardura da gonbidatuak alde batetik bestera eramatea eta euren betebeharra haien mozkorraldiak jasatea. "Arazo gehien ematen dituen zerbitzua jatetxetik irten eta autobusean igotzen direnean izaten da. Jan eta dantza egin ondoren, jendeak alkohola edaten duenez majo jartzen da".

Autobus zerbitzua eskaintzen denean gonbidatu gehienek era-

biltzen dute. Benetan eroso da autoa hartu behar ez izatea, batez ere herri ezberdinetan ospatzen badira ezteia eta bazkaria. "Normalean, ume txikiak dituztenak dira autobusa erabiltzen ez dutenak. Arau oso zorrotzak bete behar dira umeak ibilgailuetan eramateko", adierazi digute Leintz Garraioak enpresakoek.

### GAU ZORAGARRIA

Eguna bukatu ostean, leher egin da egongo dira gonbidatuak eta ezkonberriak. Eguna bikain amaitzeko hotela edo landetxea aukeratzen dute askok. Gurean eskaintza zabala dago; asko inguru ikusgarrietan, gainera.

Horren adibide dugu Elgetako Eguzkitza landetxea. Aizkorri-bera dagoen gelan lo egin eta naturaz inguratuta gosari goxoz gozatu ahal izango dute. Zerbitzu gehigarriak ere badituzte; masajea, esaterako. Ezkonberrien logelak lorez apaintzen dituzte.

## H\*\*\*arantzazu

arantzazuko santutegia hotela



Zuen ezkontza eguneko amets guztiak burutzeko prest dagoen paregabeko lekua

■ GONBIDAPENAK ETA OPARITXOAK

# Ausartzeko deia bikoteei



## GUZTIZ ORIGINALAK DIREN DISEINUAK

Udaberriko koloreak asko erabiltzen dira gonbidapenei dagokienez. Apaindutako letra tipoak gailentzen dira eta osagarri modura loretxoak erabiltzen dira. Gonbidapen modernoak egiteko gomendioa egiten digute KOHn: "Aldi berean modernoak eta eleganteak diren gonbidapenak egin daitezke". Aukera ezberdinekin zirriborroak diseinatu eta gero, bi asteren bueltan izango ditu bikoteak gonbidapenak etxean.

NEREA MENOR

**K**lasikoak garen arren, modernizatzen ari ei gara ibarrean. Plater txoak alde batera laga eta orain kandelak edota pasminak oparitzen ditugu. Betiko gonbidapenak eskatzen jarraitzen dugun arren, badaude ausartagoak, eta kolore ilunak eta paper birziklatua geroz eta gehiago ikusten dira gurean.

Ezkontza nolakoa izango den adierazle modura hartzen dituzte askok gonbidapenak. Ezkontza klasikoak prestatu dutenek, adibidez, gonbidapen klasikoak eskatzen dituzte. Horrela adierazi digute KOH diseinu grafikokoek eta Garbil inprimategikoek.

Orokorrean ezkongaiak klasikoak ei dira; hala ere, jende modernoagoa ere badago: "Azkenaldian, tonalitate ilunekoak eskatzen dira; lehen ez zen gonbidapen beltzik ikusten", adierazi digute Garbilekoek. Loretxo eta kapaz osatutako gonbidapenak ere egiten dituzte eta testua, poliki, baina aldatzen doala dirudien arren, oraindik badaude gurasoek idatzitako testu klasikoak aukeratzen dutenak ere. Gonbidapen egileek ausartzeko gomendioa egiten digute.



## OPARIETAN, GERO ETA MODERNOAGOAK GARA

Oparitxoak egiterakoan badirudi modernizatu egin garela. "Pasma eta diruzorro asko eskatu dizkigute azkenaldian", dio Mizke gozoki eta opari-dendako Maribik. Esandakoez gain, kafea hartzeko edalontziak eta xaboiak asko saldu dira emakumeen artean. "Gizonezkoentzat, labanak, poltsikoak hustekoa eta ardo eta xanpain botila txikiak eskatzen dizkigute, gehienbat". Umeendako opariak ere sartzen dituzte gozokiekin batera.

# NINIKA

L O R A D E N D A

- Andregaiantzako lore-sortak
- Eliza eta jatetxeen dekorazioa
- Lorategi eta terrazaren diseinua
- Paisajismo estudioa

Ramon Maria Lili 8 20570 Bergara  
Tel. / Faxe: 943 76 10 01

LANDETxea - CASA RURAL

## EGUZKITZA

Eibarreko errepidea z/g ELGETA  
Tel. eta faxe: 943 78 90 84  
Poltsikokoa: 679 41 66 97  
e-posta: casaeguzkitza@hotmail.com

ETA ORAIN ZERBITZU BERRIEKIN:  
**ZELULAK BIRSORTZEKO KAPSULA ETA MASAJEAK**

■ MODA: EMAKUMEA

# Joera klasikoei eutsiz ukitu berritzaileak soinekoetan

NEREA MENOR

**E**skaintza benetan zabala da emaztegiaren soinekoei dagokienez. Motzak, luzeak, kolore askokoak edota zuriak aurkitu daitezke ia edozein lekutan. Dandak luzeak ikusgarriak dira baina baita kortseak ere. Pensatu beharreko xehetasunak hainbeste izanik, soineko bakar bat aukeratzea izango da orain emaztegiaren arazo handiena.

Dudarik gabe emaztegia da ezkontzetan protagonista handiena. Guztiak bere orrazkera, makillajea eta, batez ere, bere soinekoaren zain egon ohi dira. Ospakizunaren zati garrantzitsuenetakoa da jantzia eta are gehiago emakumearena. Orri hauetan proposamen ezberdinak egingo dizkiegu ezkongaei aurtengo joerak erakutsiz.

Hala ere, soinekoa osatu beharra dago: zapatak eta, gehienbat, lore sorta oso garrantzitsuak dira ezkontza egunean.

Zapata takoidunek ezin dute huts egin. Zuriak dira orokorrean eta larruzkoak, punta borobilarekin, loretxoekin, strass delako apaingarriz hornitutakoak, joera guztientzako lekua dago



## IPUINEKO PRINTZESEN LIRAINTRASUNA GAUR

**A**rgazkiko soineko honek ipuinetako printzesen jantzien ezaugarri guztiak biltzen ditu: koroa, harri bitxiak eta jantzi panpoxa. Gainera, denboraldi honetako joerarik argiena bereganatzen du: kortsea. Zilar koloreko estanpatuak gonatik ezberdintzen du goiko aldea eta monotonia hausten du. *Nude* kolorekoa da, betiko zuri koloretik pixka bat aldentuz, kolore apur bat sartuz.



## LOREAK ETA BULAR ALDE ORIGINALA

**B**enetan bular alde deigarria du argazkiko soinekoak. Ohituta gaude erabat *ohorezko hitz* estiloko soinekoak ikustera ezkontzetan, baina honek duen mugimendua eta itxura originalak freskotasuna ematen dio soinekoari. Erabat zuria den arren, lorez apaindutako kapa da gehien ikusten dena eta atzeko oihalarekin kontrajarriz bizitasun asko ematen dio diseinuari.



## OHIKOTASUNAREKIN HAUTSIZ, BELTZA

**A**urtengo emaztegiak badute beste aukera bat: beltza erabiltzea, baina gehiegikeri gabe. Mahuketan, tiranteetan, gerrikoan edo josturetan, adibidez. Argazkikoak aipatutako azkeneko bi zatietan du beltza. Ohiko jantziak guztiz baztertu ditu diseinatzaileak eta beste momentu batzuetarako dirudien soinekoak sortu du oraingorain. Freskoa, berritzailea eta erabiltzen erraza.

soinekoren estiloak oso ezberdinak dira-eta. Orokorrean soinekoren kolorekoak edo oso antzerakoak izan ohi dira zapatak, baina zilar edo urre ukituak dituztenak ere aproposak izango dira bizi apur bat emateko jantziari.

## BASA-LOREEN SORTA

Zapatak aukeratu ondoren, lore sortaren momentua iritsi da. "Basa-lorez osatutako lore sortak dira aurtengo joera nagusia, eta zurtoina erakusten dutenak", azaldu digute Ninika loradendakoei. "Badaude gehiegi apaindutakoak ere, baina ez da ohikoa". Koloreei dagokienez, sorta berde eta zuriak asko eskatzen direla adierazi digute, "lorei dagokienez, peonia, hortentsia eta fresia loreak asko erabiltzen dira orain; neguan, tulipanak bezalakoak gehiago".

Lore sortaren tamaina soinekoren eta emaztegiaren arabera izaten da (emakume altuagoek sorta handiagoak eraman ohi dituzte). "Pertsonaren berezko estiloa ere oso garrantzitsua da sorta aukeratzeko orduan, baita ezkontza egingo den lekua ere, eliza edo udaletxea", azaldu digute Ninikan.



*Emakume, gizon eta umeentzako ezkontza opariak*

Kale Zaharra 3. Oñati. Tel.: 943 78 28 14.  
mizke@euskalnet.net




## Gutziz Eder Estetika Zentroa

### Plazera biontzat

- Aurpegiko tratamenduak: azido hialuronikoarekin eta bitamina konplexuarekin eginda.
- Gorputzeko Peeling-a eta hidratazioa.
- Gorputzeko tratamendu berria "Termasons", gorputza primeran edukitzeko.
- Harri bolkanikoekin egindako masajea.
- Betiko manikura, pedikura, depilazioa eta solariuma.
- Laser bidezko depilazioa profesionaltasunez egiteko aukera paregabea.

Zerbitzurik onena gure bezeroen esku.



Kale Barria 29, behea (Orbea etxea, parke aldetik) 20560 Oñati Tel.: 943 78 01 46

MODA: GIZONA

# Traje ilunak eta alkandora zuriak arrakastatsuenak

NEREA MENOR

**G**izonezkoek geroz eta traje eskaintza zabalagoa dute. Joera askoren artean hautatzeko aukera dute beraz; hala ere, koloreak alde batera lagako dituzte aurten eta harri bitxiz apaindutako gorbatak jantziko dituzte lepo inguruan. Txalekoei dagokionez, berrietasun asko daude eta osagarriak behar-beharrezkoak izango dira.

Emaztegaiaren soinekoa izaten da ezkontzaren erdiguneetako bat. Hala ere, urteak aurrera joan ahala, gizonezkoen nagusitasuna hazten doa eta estilo askoko trajeak aurkitu daitezke gaur egun.

Ohiko trajeari agur esan diotenak asko dira, gehiengo hain zuzen ere. Egunez egun lirainagoak izan ohi dira jantziak geroz eta gehiago zaintzen den gizonzko janzteko.

**KOLORENTZAKO LEKU GUTXI**

Aurreko urteetan traje koloretsu asko ikusi ditugu, aurten baina hauek alde batera laga behar ditugu azkeneko joera jarraitu nahi badugu. "Urte honetan kolore soilagoak asko ikusiko ditu-



**SWAROZKY BITXIAK APAINGARRITZAT**

**A**rgazkikoa traje beltza da, urte honetan ikusiko ditugun gehiengoan moduan. Txalekoa, satin azpildura dauka eta trajearen kolorekoa da. Alkandora argia nagusitzen da, zuria da distirekin eta kolore ilunen monotoniarekin hausten du. Gorbata diskretu bat du soinean swarovski harri bitxiez apaindutakoa. Aurten gojerarik argiena dugu hau eta bizitasuna ematen dio konjuntuari.



**HIRUGARREN POLTSIKOA ERLOJUARENDAKO**

**O**raingoan ere traje beltza eta alkandora zuria ikusten dira argazkian. Traje honen elementu adierazgarriena txalekoa da. Zilar kolorekoa da eta botoi inklinatuak dauzka; moda-modan dago hori. Ohiko poltsikoez gain badu berezitasun bat: erloju-poltsikoa. Txalekoan eta baita jakan ere hiru poltsiko ditu, aipatutakoa txikiena da eta ezkerrean, goiko aldean egon ohi da.



**METALIZATUA GIZON AUSARTENDAKO**

**Z**ilar edo gris koloreko trajea dugu azkeneko hau. Estilo ausartagoak nahiago dituzten gizonezkoendako da aproposena. Iluna izaten jarraitzen duen arren, ez du zerikusirik traje beltzarekin. Elementu guztiak mikroespiga metalizatuan eginda daude, alkandora zuria izan ezik. Grisaren inguruko tonuak dituzten alkandorak ere ondo joango ziren konjuntu honetan.

gu", adierazi digute Mujika jostundegian. "Duela urte batzuk eramaten ziren lebita eta semi-lebita luzeak ere desagertu egin dira dagoeneko, oraingo trajeak motzagoak dira".

Trajeekin gertatzen den modura, txalekoak ere soilagoak bihurtu dira, eta lehen kolore argietakoak aurkitzen genituen arren, 2010ean txaleko gehienak ilunak eta beltzak izango dira. "Liso faltsua ere asko eramango da. Distira apur bat dutenak ere bai". Atzealde beltza dutenetatik askok marrazki txiki metalizatuak izan ohi dituzte, bizitasun apur bat emateko. Altzairu kolore iluna eta argia ere moda-modan daude txalekoei dagokienez. Alkandorak zuriak izango dira, traje ilunekin kontrajarritz.

**PUNTA BOROBILEKO ZAPATAK**

Topolino tankerako zapatak dira arrakastatsuenak aurten. Leunagoak dira, aurreko urteetakoak baino jostura gutxiago dituzte eta aurreko iazko punta laukiak alde batera uzten dituzte. "Topolinoek punta borobilduagoa dute eta luze samarra", esan digute jostundegian. Jantzia osatzeko osagarriak erabiliko ditugu: adibidez, belarri handiko gerrikoak.



**Sastrería Mujika**

*Presta zaitez ezkontzarako!  
Jantziak neurrira egiten ditugu*



Barrenkale 1 • Tel.: 943 76 29 91 • BERGARA



**Altzari denda**

Ikerleku zeharbidea • BERGARA • Tel.: 943 03 46 30

Proiektuak • Koltxoiak • Horma-armairuak • Altzariak neurrira



**UGARTE**  
AROZTEGIA - ALTZARIAK

**Aroztegia**

San Juan 1a • BERGARA • Tel.: 943 76 54 91 • Faxa: 943 76 08 04

Ateak • Eskailerak • Leihoak • Tarimak • Egur lanak orokorrean





Ezkontzaien ardurarik handiena da menua gonbidatuen gustukoa izatea; horretan saiatzen dira ibarreko jatetxeak.

GOIENKARIA

## Ohiko solomilloa baino nahiago izaten da oreina, ahate-konfita edo antxumea

go eskatzen dela esan digute Bergarako Lasa jatetxean: "Egiten zailagoak diren platerak nahiago ditu jendeak. Orain, oreina eta halakoak eskatzen dizkigute gehiago". Hala ere, menuan errezeta modernoak klasikoagoekin uztartzen saiatzen dira, "guztien gustuko platerak sartzeko".

Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean, aldiz, antxumeak du arrakasta handien. "Lupia (lubina), rapea eta bogabante-entsalada asko eskatzen dute, baina, duda barik, antxumea aukeratzen dute gehienek".

Duela gutxi hartu du Arantzazuko Santutegia Hotela Mikel Quesadak. Haiek ere ezkontzak ospatzeko jantoki ederrak dituzte, eta baita eskarmentua ere, adierazi diguten moduan: "Lehenago ere ibili gara ezkontzak prestatzen. Gure menuetan plater tradizionalak sukaldariaren ukitu bereziekin uztartzen ditugu". Santutegiko plateren artean, trufa eta pinaziz betetako bildotsa, txahal-masaila eta ahate-konfita daude.

### DANTZA ETA MUSIKA

Bapo bazkaldu ondoren, musika eta dantzaren ordua heltzen da. Horretarako, ezkontzaien musika talde eta DJaren artean aukeratu behar dute. Debagoienean, DJa aukeratzen da gehienetan eta, jendea animatze aldera-edo, menuarekin doan edariaz aparte gonbidatuentzako doako edariak ere kontratatzen dira sarri.

## ■ JATETXEAK

# Menu modernoak lekukoaren bila

NEREA MENOR

**H**amar plater inguruko menuak aukeratzen dira ibarrean. Orain, doako edariak ere kontratatzen dira gehienetan, eta, jatetxearen apaintzetaz gainera, giroa ere kontuan hartzen da.

Ezkontzetan, ospakizunaren momentu gogoangarrienak eta dibertigarrienak bazkaltzeko orduan gertatzen dira beti. Horregatik, garrantzitsua izaten da oso jatetxe egokia aukeratzea. Aukerak asko dira: menu izugarriak edo apalagoak, doako edana,

musika taldea edo DJa... Guztiek ondo pasatzeko proposamen asko dago; ondo aukeratzea da kontua.

### TXANGURROA ETA ANTXUMEA

Orokorrean, aurretik osatutako menuak izaten dituzte jatetxeetan eta horien artean aukera deza-

kete ezkontzaien. Oñatiko Etxe Aundi jatetxean, esaterako, ezkontzearako sei menu dituzte, plater ezberdinekin: legatza txangurroz beteta; oreina, ahate-konfita eta bakailao-entsalada, besteak beste. Solomilloa betiko platera da, baina geroz eta gutxia-



*leku eta egun ahaztezinak*

100 eta 200 gonbidaturendako jangelak ditugu.



**Etxe  
Aundi**

Jatetxea-Hotela\*  
[www.etxeaundi.com](http://www.etxeaundi.com)

Torre Auzo 9  
OÑATI (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 19 56



# Gure Ametsa

## *Gatetxea*

943 71 49 52  
gatzaga

ezkontzatarako areto handi eta erosoak  
aperitiboendako terraza  
sukaldaritza zaindu eta paregabea  
aurrekontu guztietarako menuak



## ■ EZKONBIDAIK

# Krisiak ez du 'bizitzako bidaiak'

JOKIN BEREZIARTUA

**E**zkontza eguneko *zoramenaren* ondoren bikoteak berebiziko garrantzia ematen dio ezkonbidaia bidaiak ahaztezi-  
na izateari. Izan ere, oro har, bizitzan behin egiten den bidaiaren pentsaera da nagusi oraindik bikoteen artean, eta horregatik, bizi dugun krisi ekonomikoak ez du larregi mugatzen bidaion antolaketa.

Krisiak krisi, ezkonbidaiak bizitzan behin egiten diren pentsaera ez da aldatu eta beraz, ezkonberriek ez diote gastuei larregi erreparatzen. Hori bai, Arrasate Bidaiak agentziako Ane Bereziartuak adierazi du bikoteek agentzia ezberdinak konparatzeko joera dutela eskaintza merkeen bila. Gainera, Bereziartuak gaineratu duenez, hainbat bikote hasi dira egun gutxiagorako eta gertuago bidaiatzen.

Ohiturak aldatzen doaz; lasaitasuna eskaintzen zuten hondartzak bai, baina bikote gazteek abentura ere eskatzen diete bidai agentziei. Abentura eta mugimendua bai, baina lasaitasuna ere bai: oso ohikoa da, adibidez, Barcelo Bidaiak agentziako Garbiñe Elortzak jakinarazi duenez, New York bisitatu ostean Punta Cana edo Hawain egun batzuk egitea. Hortaz, ezkonberrien artean joera nagusia da leku ezberdinak konbinatzea, bizitza osoan ahaztuko ez duten bidaiarako.



AMERIKETAKO ESTATU BATUAK, HONDARTZAREKIN BATERA

**A**meriketako Estatu Batuak hainbat bikoteren aukera dira oraindik. Esate baterako, ezkonberrien artean New York-ek izugarri erakartzen du oraindik eta oso ohikoak dira bertara antolatzen diren bidaiak. Hori bai, *dorreen hiria* beste leku batzuk bisitatuz konbinatzea da joera nagusia. Hala, New York-en lau edo bost egun egin ostean bi dira aukera ohikoenak: Maia Erribera bisitatzea –hondartza ere aprobeztatuz– edo Hawai zein Punta Cana moduko hondartzetara joatea.



ARGENTINAKO KONTRASTEAK, MODAN

**B**arcelo Bidaiak agentziako Garbiñe Elortzak jakinarazi duenez, Argentinara bidaiak egitea "modan" dago. Elortzak dioenez, hainbat bidaiak antolatzen dituzte Argentinako kontrastez gozatzeko –Buenos Airesko beroa eta Patagoniako hotza– eta bertako ohiturak ezagutzeko bisita antolatuak egin ohi dituzte. Gainera, Argentina atzean utzi eta Brasilgo hondartzetara zein Txileko Pascua irlara joatea gustuko izaten dute ezkonberriek.



## ZURE AMETSETAKO BIDAIARAKO ERREZTASUNAK EMANGO DIZKIZUGU!

Ezkon-bidaietan beherapen ikaragarriak

• Ordainketetarako erreztasunak

• Aste bukaera bateko egonaldi baten zozketa

Arrasate Bidaiak

CIE 2214

BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA

ARRASATE BIDAIAK • Kontzeziño kalea 12 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 30 / Faxes: 943 79 74 45  
E-posta.: d4051@marsans.es

Leintz Garraioak, urbano zerbitzuaz gain,  
txangoak, ezkontzak, sagardotegiak e.a.

LEINTZ GARRAIOAK S.L.  
Musakola, 20 (Pereda)  
20500 ARRASATETel.: 943 71 27 07 / Faxes: 943 79 14 19  
Posta-e: leintzgarraioak@leintz.com  
www.leintz.com

# -ren pentsaera aldatzea lortu



## ASIA, GERO ETA GEHIAGO ERAKARTZEN DUEN KONTINENTEA

**A**sia da ezkonberriek egiten duten beste aukera bat; azken urteetan gero eta gehiago, gainera. Asiako herrialdeen artean helburu ohikoenen artean daude Japon, Tailandia eta Polinesia –Balira joatea modan dago, adibidez–. Asiaren berezitasunak ezagutu ostean bikote askok Australiara jaistea erabakitzen dute. Alderantziz ere egiten da: bereziki Australiako kostaldea ezagutu ostean –Sydneyko zeruertza (*skyline* famatua) bisitatzea oso ohikoa da– Asiako hego-ekialderantz egiten dute askok.

## DOMINIKAR ERREPUBLIKA, HUTSIK EGITEN EZ DUEN AUKERA

**E**zkonberriek aukeratzen duten bidaiak ohikoenetarikoak eta urtero hutsik egiten ez duena da Dominikar Errepublikara joatea. Barcelo Bidaiak agentziako Garbiñe Elortzak adierazi duenez, eskaintza finkoa da. Lasaitasuna, hondartza xarmagarriak eta eguraldi ona dira ezkonberriek halako lekuetan eskatzen dutena.



ZUENTZAT, VISA BARCELOREKIN %10EKO DESKONTUA EDO %15EKO DESKONTUA HURRENGO BIDAIETAN

## Bidaiari maiteminduak

**Barceló**  
BIDAIK

Informazio gehiago zure Barceló bulegoan. **BERGARA:** Ibargarai 8, behea | 943 76 08 43 eta **ARRASATE:** Maalako Errabala, 27 | 943 79 70 11

## ESTETIKA

# Norberaren araberako edertasun trataerak



## LASERRA, EMAZTEGAIEN ILEENDAKO SENDAGAIA

**E**maztegiaren buruhauste handiena aurpegiko ileak izaten dira. Horien aurkako sendagai eraginkorrena laserra da zalantza barik, eta azkenaldian oso ohikoa da laser tratamendua jasotzea ezkontzaren aurretik. Bibote eta bikainetan aplikatzeaz gain, izterondoetan, besapeetan eta izterretan ere aplikatzen da laserra; trataera honek estetikaren mundua aldatu du. Bestalde, gorputza leun eta lirain izateko *peeling*-a da tratamendu arrakastatsuenak.

## JOKIN BEREZIARTUA

**E**stetikari dagokionez, ezkontza egunerako lasai egoten dira emaztegaia eta senargaiak. Izan ere, estetika zentroek aurrez egiten dituzte proba guztiak protagonistengan eta egun bereziko ez da beldurrik izaten alde horretatik. Estetika zentroek eskari bera izaten dute emaztegai zein senargaiarendako.

Aurpegirako tratamenduak dira ezkontza egunerako garrantzitsuenak, eta aurpegiaren araberrakoa izaten da tratamendua. Hortaz, tratamenduak erabat personalizatuak izaten dira. Angela estetika zentroko Jon Apraizek adierazi duenez, aurpegiak berak eskatzen du zein den tratamendua. Bestalde, gorputza leun iza-

teko *peeling*-a da tratamendu arrakastatsuenak eta ileek sortzen dituzten buruhausteendako sendagaia laserra da, zalantza barik.

**MAKILLAJERAKO, 'MUNDU BAT' GARA**  
Gutziz Eder zentroko Arantzazu Txintxurretak dioenez, makillatzerako orduan bakoitza "mundu txiki bat" da. Batzuei asko gustatzen zaie eta beste batzuei, aldiz, gutxi. Estetika zentroek, noski, protagonistak eskatzen duena egiten dute. Hori bai, Angela Foto-depilazioko Jon Apraizek honakoa uste du: "Makillaje on baterako bi dira faktore garrantzitsuenak: erabiltzen diren produktuak eta makillatzen duen pertsona".

Ezkontza egunerako dena gertu dago, eta bikotea lasai, aurrez egin dituen proba guztiak direla-eta. Estetika zentroak lasaitasun hori emateaz arduratzen dira.



## SENARGAIEN ESKAERA, EMAZTEGAIEN BERBERA

**E**stetika zentroek emaztegiaren trataera bera ematen diote senargaiari, egun eskaria ere bera da-eta. Gizezkoetan ere laserra da ileen aurkako etsai nagusia: bizarrean -pixka bat-, lepoan, bizkarrean eta begi ondoko ileetan aplikatzen zaio bereziki. Bestalde, aurpegia garbitu, hidratatu eta oxigenatzeko tratamenduak ere ematen zaizkio, gizonentzat oso komenigarriak izaten dira-eta. Finean, denetarik probatzeko gertu sartzten dira estetika zentroetan.

Zure ezkontza

ZURE

bizitzako

egunik garrantzitsuena

Jarri profesionalen eskuetan

Ezkontza pack-a

220€

- \* Aurpegi garbiketa
- \* Tratamendu oxigenatzaileak
- \* Manikura
- \* Makillajea....

estetika zentroa

angela

Ferrerias 35 - 20500 Arrasate - Tel: 943 79 88 23

[www.angelaestetika.net](http://www.angelaestetika.net)

■ ETXEAREN APAINKETA

# Espazioa eta sinpletasuna

JOKIN BEREZIARTUA

**B**ikote ezkonberriek etxe berria apaintzeko orduan espaziorari berebiziko garrantzia ematen diote, eta sinpletasuna da aukeratzen dutena. Apainketaren inguruan epe luzerako pentsamoldea da nagusi; hau da, elementu batek ez dezala gela oso baten dekorazioa baldintzatu. Finean, aurrezte plana da nagusi, baita apainketan ere.

Apainketa buruhauste iturri izan ohi da ezkonberriak etxe berrian sartzen direnean. Bada, salbuespenak salbuespen, etxean altzari gutxi –espazioaren onerako–, sinpletasuna eta dirua aurrezteko pentsamoldea dira nagusi. Koloreei erreparatuz, zuriak eta beltzak agintzen jarraitzen dute eta neutraltasuna da ezkonberriek gustuko dutena.

Sukaldeetan, Servimasako Ainhoa Galarragak laster datoren joera bat aurreratu digu: "Oraindik gurean ez da ezarri, baina katalogoetan gero eta gehiago heldzen dira egongela eta sukalde batzen dituzten eskaintzak". Galarragak adierazi duenez, hainbat bikotek etxe zahar baten sartzean obra handi bat egin behar badute, egongela eta sukalde batzea eskatzen dute. Bestela, berritasun gutxi. Kolore zuria nagusi, sukaldeetan argitasunak agintzen du-eta. Etxetresna elektrikoetan herdoilgaitza nagusitzen da, eta hozkai-



Egongeletan, bereziki, espazioak berebiziko garrantzia dauka.

GOIENKARIA



Sukaldeetan zuria da nagusi; argitasunak agintzen du.

GOIENKARIA



Erraz digeritzeko koloreak dira nagusi logeletan.

GOIENKARIA

lu handiagoak – 1,85etik 2 metrotaraino– eta labe txikiagoak –60tik 45 zentimetrotaraino– eskatzen dira. Gainera, ontzi-garbigailua ezinbesteko etxetresna bihurtu da. Finean, sukalde arinak gura dituzte ezkonberriek.

Bestalde, Ugarte aroztegiko Asun Lezetak dioenez, "erraz digeritzeko" koloreekin datoz logela eta egongelak: zuria eta beltza, eta intxaur kolorea zuriarekin konbinatuta. Gainera, logeletan kristal lakatuak nagusitzen doaz, gela-

ri zabaltasuna ematea helburu zuten ispiluen kalterako. Armaru, kaxoi eta ateetan *push* sistema hasi da sartzen –heldulekua sakatuz zabaltzen dira–. Azkenik, bainugeletan koloredun estalkiak eta beira asko erabiltzen hasi

dira. Altzariak ez du lurra ukitu nahi eta laua zuriak eta beltzak dira nagusi. Lauzetan ia ezberdintzen ere egiten ez diren marrazkitxoak –loreak, bereziki– datoz. Finean, bikotea ez da askorik konplikatzen etxea apaintzerakoan.

- Eguna ✓  
- Tokia ✓  
- Gonbidatuak ✓

**INPRIMATEGIA  
GARBIL  
PAPERDENDA**

943 76 23 28  
943 76 54 87  
@imprentagarbil@euskalnet.net  
Artzamedi, 4  
20570 Bergara Gipuzkoa

**hau guztia garbi baldin baduzue...  
etorri GARBILera gonbidapenak aukeratzera!!!**



Finantzaketa kuota personalizatuak

**SIMS  
SERVIMASA**  
Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173  
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49  
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa  
Tel.: 943 52 05 00 Faxe: 943 51 57 57  
20100 LEZO



Gipuzkoako  
bankete-jatetxe  
onenaren  
Mas Gastronomia  
2009 saria.



*250 lagunentzako jantokia*

*Gustua eta luxua denon eskura*

**LASA** jatetxea

Ozaeta jauregia

Tel.: 943 76 10 55

**BERGARA**



EUSKARA > UDALA

# Etorkinak euskarara hurbil daitezzen ikastaroa gertu dute

Martxoaren 31 baino lehen eman behar da izena kultura etxean edo Gizarte zerbitzuan

60 ordukoa da; apirilaren erdialdetik ekainaren amaiera arte iraungo du

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Herrira kanpoko herrialdeetatik gero eta jende gehiago etortzen dela jabetuta, Eskoriatzako Udalak, Aretxabaletako Udalarekin eta Leintz Udal Euskaltegiarekin batera, euskara *Aisa* ikastaroa gertatu du ostera ere etorkinendako. Euskara zerbitzuko teknikari Mari Carmen Arrietak jakinarazi digu laugarren urtea dela hori antolatzen dutela eta datozen egunotan, udalerrian bizi diren etorkinek gutuna jasoko dutela etxean, ikastaro horren gaineko informazio zuzenarekin.

Euskara ikasteko oinarri-oinarriko ikastaroa dela jakinaraziko zaie horretan, eta euskararekin harremanik izan ez duten 16 urtetik gorako etorkinei zuzendutakoa dela. Ikastaroa 60 ordu-



Aurreko urteotan egindako ikastaroetako parte-hartzaileak, eskolan.

IKER BARANDIARAN

koa izango da eta izena ematen dutenen artean adostu beharko da zein egun eta ordutan emango diren eskolak. Asmoa da astean hiru egunetan izatea horiek, egun bakoitzean bi ordu sartuta.

**MARTXOAREN 31RA ARTE**

Interesatuak martxoaren 31ra arte dute izena emateko aukera, herriko kultura etxean, Udal Gizarte zerbitzuetan edo 943 71 46 88 tele-

fono zenbakian. Arrietak azaldu du eskolak apirilaren 19ko astean hasiko direla eta ekainaren 25eko astera arte luzatuko direla.

Ikas-materiala HABEK jarriko du, eta HABEren eta Udalaren artean ordainduko dute. Ikasleek, berriz, matrikula sinbolikoa bakarrik ordaindu beharko dute. Horren prezioa ez da aldatu. Interesatuak 10 euro bakarrik ordainduko dituzte.

**MARTXOAREN 31ERA ARTE**

Leintz Udal Euskaltegi arduradun Karmele Agirregabiriak aipatu du asmoa dela Aretxabaletan eta Eskoriatzan izena ematen dutenekin talde bakarra osatzea. Joan den urtean, bi herrietako 15 lagunek parte hartu zuten esandako ikastaroan. Peru, Kolonbia, Maroko eta Boliviako 40 urteko emakumeak ziren gehienak.

ARTEA > PINTURA

## Margo lehiaketa egingo dute etzi

16 urtetik gorakoen mailan hiru sari banatuko dira: irabazleak 500 euroko saria jasoko du; bigarrenak, 250; eta hirugarrenak, 150

M.B. > ESKORIATZA

Domekan, Eskoriatzako IV. Margo Lehiaketa egingo dute. Udaletik jakinarazi dutenez, nahi duenak parte hartu ahal izango du horretan eta teknika librea da. Gaia, aldiz, urterokoa izango da: Eskoriatza, hain justu.

Oihalak 09:00etatik 11:00etara zigitatuko dira herriko kultur etxean eta goiz osoa izango dute lan egiteko; izan ere, margolanak 13:00etatik 14:00etara bitartean entregatu beharko dira eta Ibarraundi museoa. Jarraian, bazkaria egongo da 16 urtetik gorako parte-hartzaileendako, 14:30ean. Epaimahaiaren erabakia, berriz, 18:30ean

jakinaraziko da museoa eta, jarraian, sari banaketa egingo dute. 16 urtetik gorakoetan (16 urtekoak barne) hiru sari egongo dira: irabazleak 500 euro lortuko ditu; bigarrenak, 250; eta hirugarrenak, 150. Adin horretatik beherakoetan, pintatzeko materiala irabaziko dute lehengo hirurek.

**ERAKUSKETA, HILAREN 28AN**

Margolanak martxoaren 28tik apirilaren 16ra ikusgai egongo dira Ibarraundi museoa. Horren harira, Udaletik gogorarazi dute saritutako margolanak antolatzaileen esku gertatuko direla.

AISIALDIA > GAZTELEKUA

## Pazko astean irteera egingo dute

Domekan, hilak 28, amaituko da Pazko astean Elantxobera egingo duten hiru eguneko irteeran izena emateko aukera

M.B. > ESKORIATZA

Gaztelekua zabalik egongo da Pazko astean. Apirilaren 6an zabalduko dute eta eskulanak egiteko aukera izango dute gazteek egun horretan. Hurrengo egunean, afari-merienda egingo dute; eta apirilaren 8an, berriz, ping-pong eta mahai-futbol txapelketak jokatuko dituzte.

**ELANTXOBERA IRTEERA**

Hiru eguneko irteera ere gertatu dute egun horietarako. Txatxi-

lipurditik azaldu dutenez, 12 eta 14 urte bitarteko gazteak Elantxobera aterpetxera joango dira apirilaren 9tik 11ra; horrekin batera, gogorarazi dute domeka baino lehen eman behar dela izena (hilak 28) Gazteria Zerbitzuan edo gaztelekuan bertan. Irteeraren prezioa 35 euro izango da.

Irteera horren harira, antolatzaileek gurasoendako bilera antolatu dute. Astelehenerako, martxoak 29, jarri dute hitzordua gaztelekuan.

**ROKODROMO TXAPELKETA**

Oporrak iristen diren bitartean, baina, asteburu honetan ekimen interesgarriak egingo dituzte: bihar, zapatua, balance bike zirkuitua izango dute gertu eta domekan, rokodromo txapelketa. Esandako bi ekimen horiek 18:00etan hasiko dira.

oharrak

UMEAK

**> PlayStation ludotekan**

Gaur, 18:00etan, PlayStation kontsolarekin jolastu ahal izango dira 7 eta 12 urte arteko neska-mutikoak ludotekan.

KIROLA

**> Asteburuko kirol hitzorduak**

Hiru norgehiagoka jokatuko dira aste bukaeran. Bihar, zapatua, saskibaloiko partidu bi izango dira: 16:00etan, kadete mailakoa, Eskoriatza Krafft-Axular taldearen kontrakoa; eta 18:00etan, senior mailakoa, Eskoriatza Krafft-San Sebastianen aurkakoa. Domekan gazte mailako areto-futbola dago, 11:00etan, Etxekoen eta Orixe Tolosaren artean.

AISIA

**> Gaur amaitzen da udalekue-tan izena emateko epea**

Gaur amaituko da Diputazioak 7-13 urte arteko umeendako antolatutako udalekue-tan izena emateko epea. Gazteria Zerbitzuan eta [www.gipuzkoa.net/oporraldi](http://www.gipuzkoa.net/oporraldi) webgunean eman daiteke izena.

ZERGAK

**> Ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar da**

Aurtengo urteari dagokion trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar da. Zerga-ordainketa helbideratuta daukatenei maiatzaren 5ean egingo zaie kobrantza. Ordainketa helbideratu barik dutenek maiatzaren 5era arte dute borondatezko ordainketa egiteko.

ANTZERKIA

## 'El príncipe de mentiras' antzezlan dago gaur

M.B. > ESKORIATZA

Antzerkia dago gaur gauean unibertsitateko aretoan. *El príncipe de mentiras* izeneko antzezlan egingo du, debalde, Eburne Agirrezabalak, 22:30ean.

Bakarriketaren bidez, senarraren bizitzaren mende dagoen emakume batek bikote-bizitzan izandako bizipenak kontatuko ditu, harremanaren hastapenetan hasi eta tratu txarren mugara iritsi arte. Tartean, senarraren ama gaixotu egingo da, eta emakumeak lan egiteari utziko dio amaginarreba zaintzeko; senarrak, bitartean, betiko bizimoduari eutsiko dio. Zalantzak baino ez dituen arren, senarra ez uztea erabakiko du azkenik.



Friendship programan parte hartu duten ikasleak eta oñatiarrak Gernikako Batzar Nagusietara egindako irteeran.

AXIER EGAÑA

JENDARTEA > HEZKUNTZA

## 'Friendship' programan 18 ikasleak eta 23 oñatiarrek parte hartu dute

Lege Soziologia Institutuan masterra egin duten ikasleak eta herritarrek jardun dute iraila ezker, eta askotariko ekintzak eta irteerak egin dituzte

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

2009-2010 ikasturtean Lege Soziologia Institutuan masterra egiten egon diren ikasleak euren herri-tara itzuliko dira gaurtik hasita. Hala, *Friendship* programak atak itxiko ditu. Iraila ezker, 18 ikasleak eta 23 oñatiarrek parte hartu dute egitasmoan. Helburua zen Antixena etxean egon diren atzerriko ikasleen integrazioa erraztea. Programa bukatu egin dute, eta guztiak, antolatzaileak, ikasleak eta herritarrek, oso pozik daude esperientziarekin.

IRTEERA ASKO

Nazioarteko Lege Soziologia Institutuko kideek Finlandiako Unibertsitatean martxan zegoen ekimenetik hartu zuten *Friendship* egitasmoa martxan jartzeko ideia. Deialdia egin zuten herritarren artean, eta 23 oñatiarrek erantzun zuten. "Lehen aldia izateko, erantzun ona jaso genuen", esan digu egitasmoa koordinatzaile Susana Arresek.

Irailan elkar ezagutu zuten guztiak, eta ordutik hona ekin-

tza asko antolatu dituzte. Jakin dute Oñatiko jaiak nola ospatzen dituzten; herriko ondare historiko-kulturala ezagutzeko aukera izan dute; eta, oro har, Euskal Herriko txoko esanguratsuenak bisitatzeko aukera izan dute.

Lucero Ibarra (Mexico), Nandibaye Akingar (Txad) eta Stanislaw Golebioswki (Polonia) *Friendship* egitasmoa kideak izan dira. Hiru ere oso gustura hartu dute programa eta esan digute Oñati eta oñatiarrak ezagutzeko aukera zuzena izan dutela. Gaineratu digute euren etxetik kanpo egin dituzten sei hila-

beteak azkarrago pasa zaizkiela. "Etxetik kanpo egotea ez da erraza, eta egonaldia arinago egiteko lagunak beharrezkoak dira. Nik, behintzat, betiko egin ditut lagunak Oñatin. Axier, Idoia, Maite, Jon, Andoni, Eva, Ander... Eskerrik asko, bihotz-bihotzez!", dio Golebioswki.

"HERRITAR GUTXI"

Parte-hartzaile guztiak azpimarratu dute kultura ezberdinetako ohiturak ezagutzeko aukera izan dutela; besteak beste, Argentinako, Indonesiako, Italiako, Turkiako eta Sierra Leonako

kideek parte hartu dute programan. Oñatiarrek ere esperientzia itzela izan dela esan digute, baina herritar gehiagoren inplikazioa beharrezkoa dela etorkizunean. "Oñatiar gutxi ibili gara. Hasieran gehiagok eman zuten izena, baina, azkenean, gutxi batzuk ibili gara. Dena den, esperientzia oso aberasgarria izan da. Lagunak egiteko, euren ohiturak ezagutzeko eta ingelesa lantzeko aukera izan dugu. Hurrengo ikasturterako herritarrek gonbidatu gurako genituzke", esan digute Joseba Guridik, Maria Almeidak eta Axier Egañak.

ESANAK

**"Euskaldunak itxiak zinetela uste nuen, baina kontrakoa erakutsi didate; gurekin oso adeitsuak izan dira"**

Lucero Ibarra > Ikaslea

**"Antolatzaileen lana nabarmenduko nuke; hasieratik bukaerara informazioa eta laguntza jaso ditugu euren aldetik"**

Maria Almeida > Oñatiarra

**"Batez ere, programan parte hartu duten pertsona guztien konpromisoa azpimarratuko nuke; eskerrrik asko!"**

Nandibaye Akingar > Ikaslea

**"Onena lagun berriak ezagutzeko izan da, eta txarrena, euren egoteko nahi beste denbora ez dudala eduki"**

Andoni Fernandez > Oñatiarra

**"Eskolatik kanpo 'bizitza' egiteko aukera izan dugu; lagunak egin ditut, betiko, eta herrian integratuta egon naiz"**

Stanislaw Golebioswki > Ikaslea

**"Herrialde ezberdinetako pertsonak ezagutzeko aukera izan dugu, eta Oñatitik mugitu barik!"**

Axier Egaña > Oñatiarra

Susana Arrese >  
Koordinatzailea

### "Ikasturte berrirako deialdia ekainean egingo dugu"

M.B. > OÑATI

Susana Arrese da *Friendship* programaren koordinatzailea. Egitasmoa bukatuta, balorazio eske jo dugu harengana.

Ze balorazio egin duzu?

Lehen urtea izanik energia handia eta denbora luzea kendu dit, baina balorazio oso positiboa da, duda barik. Antolatzaileok gustura gaude, eta baita ikasleak eta herritarrek ere.

Zergatik erabaki zenuten halako programa bat martxan ipintzea?

Halako programa baten beharra zegoela ikusten genuen. Iaz Finlandian egon ginen, eta handik hartu genuen ideia. Atzerriko ikasle bat Finlandiara heltzen denean, hango ikasle bat zain izaten du. Azken 20 urteotan masterreko ikasle batzuk saiatu dira herriko jendearekin hartu-emanetan ipintzen, baina zaila egiten zitzairen. *Friendship* programaren bidez lortu dugu. Masterreko lehen ikaslea Oñatira heldu zenean herritar bat zegoen haren zain Antixenan.

Nola antolatu dituzue ekintzak?

Hasieran, harrera-bilera egin genuen guztiarekin. Ondoren, euren antolatu dituzte ekintzak. Dena den, mail bidez guztiak ezagutu dituzte ekintzak eta irteerak.

Aurrera jarraitzeko asmorik baduzue?

Bai, aurretik egiten den esfortzuak merezi duela uste dut. Gurekin egon diren ikasleen eta oñatiarren gomendioak jarraituz, ekainean aurkeztuko ditugu, hedabideen bidez, ikasturte berriko ikasleak. Asmoa da uztaileko herritarren izenak batzen hasia eta posta elektronikoko bidez hartu-emanetan jartzea.

Masterreko ikasleak irailan helduko dira Oñatira. Herriko jaiak direla eta, ekintzak batera hilabetea izaten da, eta denboraz antolatzea komeni da.

*Friendship* programa irailaren 20an hasiko dugu.



GOIENKARIA



> DEIALDIA  
**Hil bukaerako elkarretaratzea egingo dute gaur**

Oñatiko presoen senideek eta preso ohiek deituta, hileko azken egubakoitzeko elkarretaratzea egingo dute gaur, 19:30ean, plazan. Urtea hasi zenetik egin bezala, euskal presoei elkartasuna adierazteko eta haien eskubide zibil eta politikoak errespetatu daitezela eskatzeko bilduko dira.

> ELIZA  
**Erramu-domeka ospatzeko familia meza egingo dute etzi**

Katekesi taldeak antolatuta, familia meza egingo dute etzi, 12:00etan, Erramu-domeka dela aprobetxatuta. Elizkizuna hasi aurretik, 11:45ean, erramuen bedeinkapena egingo dute parrokiaren sarrean. Ondoren, haurrek kaperan entzungo dituzte elizkizunaren inguruko kontuak.

> DEIALDIA  
**Magia ikuskizuna Txan magoaren eskutik etzi**

Errekalde Herri Eskolako guraso taldeak antolatuta, Txan Magoak ikuskizuna egingo du etzi Santa Ana antzokian, 17:00etan. Sarreak salgai daude eskolako idazkaritzan, hiru eurotan. Era berean, egunean bertan eros daitezke aretoko sarrean lau eurotan.

> KIROLA  
**Senior mailako saskibaloikoak Araberriren kontra**

Sailkapeneko lehen lekuan jarraitzeko irabazi beharreko partidua jokatuko du bihar Aloña Mendik Araberriren kontra (Zubikoa, 18:00). Oñatiarrek lehia estua dute Lizuan eta Santurtzi taldeekin. Biek ala biek euren kiroldegietan jokatuko dute aste bukaeran.

> KIROLA  
**Verkol Aloñak Kukullagaren bisita jasoko du bihar**

Eskubaloiko senior mailako neskek talde indartsu baten kontra jokatuko dute bihar Zubikoa, 16:30ean: Kukullaga bizkaitarrek 17 partiduetatik lau bakarrik galdu eta 24 puntu dituzte sailkapenean. Oñatiarrei, aldiz, kosta egiten zaie partidua irabaztea, eta hamar puntu bakarrik batu dituzte.

**KIROLA > EHIZA**

# Jose Ignacio Leibarrek irabazi zuen herri mailako ehiza txapelketa

Bi eper eta hiru faisai ehizatu zituen Zanbranan (Araba) jokatutako proban eta gainerako 17 parte-hartzaileak menderatu zituen

**MIREIA BIKUÑA > OÑATI**  
Jose Ignacio Leibarrek irabazi zuen hilaren 20an Zanbranan (Araba) jokatutako herri mailako ehiza txapelketa. Guztira, bi eper eta hiru faisai ehizatu zituen, eta 502 puntu batu zituen. Hamargarren aldiz jantzi zuen txapela, eta oso pozik zegoen. "Ez da lehen aldian bezala, baina ilusioa egiten dit. Gazteak indartsu datoz, eta lehenengo bukatzea geroz eta zailagoa da", esan digu irabazleak. Haren atzetik sailkatu ziren

Josu Lizarralde (lau eperrekin), Mikel Otxoa-Angiozar (lau eperrekin) eta Aitor Zugasti (hiru eperrekin).

**TXAKURREN LANA**  
Giro onean jokatu zuten herri mailako ehiza txapelketa. 36 eper eta 15 faisai askatu zituzten. 09:00etatik 13:00etara ehizan ibili ziren guztiak txakurren laguntzarekin. Animalien lana ezinbestekoa da halako txapelketetan. "Txakurrak eperrak edo faisaiak

topatzen ditu, eta lurretik altzarazten dituenean, ehiztariok tirokatu egin behar ditugu", dio Leibarrek. Zapatuan, Goiz txakurra bera baino argiago ibili zela esan digu irabazleak: "Txakurrak altxatutako hiru pieza ez nituen harrapatu. Huts egin nuen".

Zapatuan haizea zebilen Zanbranan, eta tenperatura epela. Horregatik, beharbada, pieza gutxi ehizatu zituzten parte-hartzaileek. "Askatutako 15 faisaietatik sei bakarrik harrapatu genituen, eta hori ez da normala. Txakurrendako giro txarra egiten zuen", dio Leibarrek.

Sailkapeneko lehenengo laurrek irailako eskualdeko txapelketan parte hartuko dute.



Aitor Zugasti, Jose Ignacio Leibar, Mikel Otxoa-Angiozar eta Josu Lizarralde, harrapatutako piezekin.

IGOR ARRESE

**MUSIKA > ABESBATZA**

## Hirugarren Munduko haurren aldeko kontzertua

Ganbara kantu eskolako kideek egingo dute bihar

**M.B. > OÑATI**  
Ganbara kantu eskolako kideek udaberriko kontzertua egingo dute bihar, 19:00etan, Santa Ana antzokian. Berezia izango da, Hirugarren Munduko haurren

askatasunaren eta bakearen aldeko emanaldia izango da-eta. Horren harira, bakearen aldeko kantuak eta Hirugarren Munduko haurren gaineko irudiak eta datuak eskainiko dituzte.

**ASKOTARIKO MUSIKA**

Gainera, Ganbarako bost taldeek –kantu tailerra I, kantu tailerra II, Ganbara Txikitxoak, Ganbara Txiki eta Ganbara Gazte– hiru hilekoan landutako kantuak abestuko dituzte. Besteak beste, polifonia, jazza, gospela, eta euskal musika eskainiko dituzte. Aitor Biainek eta Miren Plazaolak egingo dituzte zuzendari lanak eta Eli Mendaratzek eta Miren Plazaolak joko dute pianoa.

Sarrerak kultura etxean eros daitezke bost eurotan.

**beteranuak**

**EMAITZAK**

**A TALDEA**

Albok-Indar 85	5-1
Bundeswehr-Gaur Bai	4-4
Lozorromo-Sasquatch	2-1
Zorrobero-Gibel Boys	2-0

**PARTIDUAK**

**LIGA AZKEN FASEA, MARTXOAK 27**

<b>15:00:</b>	Zorrobero-Joxely/ Marku
<b>16:30:</b>	Gibel Boys-Kalañatasaray/ Mattin
<b>18:00:</b>	Txarrixak-Sasquatch/ Arrilla

**LIGA AZKEN FASEA, MARTXOAK 28**

<b>13:30:</b>	Nandrolona-Dollygans/ Moli
---------------	----------------------------

> **Arduraduna 15:00-16:30:**  
Indar 85  
> **Arduraduna 18:00-13:30:**  
Ankarteko

**SAILKAPENA**

A TALDEA	P	J
1. Zorro Bero	24	8
2. Doolygans	16	8
3. The Gibel Boys	15	8
4. Sasquatch	10	8
5. Albok	10	8
6. Indar 85	8	8
7. Gaur Bai	7	8
8. Lozorromo	6	8
9. Bundeswehr	5	8

**B TALDEA**

B TALDEA	P	J
1. Txarrixak	18	8
2. Kalañatasaray	16	8
3. Nandrolona	16	8
4. Joxely	14	8
5. Xaguxar	14	8
6. Txuskos	11	8
7. Etxaizat	5	8
8. Ankarteko	5	8
9. Jai Ari	3	8

**GOLEGILE ONENAK**

1. Joseba Albizu (Doolygans)	16
2. Joseba Agirre (Txarrixak)	13
3. Gorka Zelaia (Joxely)	11
4. Carlos Gonzalez (Zorrobero)	8
5. Yerai Varela (Zorrobero)	8

### Txapelketaren bigarren fasea hasiko dute

Lehenengo faseko partidua guztiak jokatuta, ligako eta kopako faseak hasiko dituzte aste bukaeran. Bi multzoetako lau talde onenek ligako fasea jokatuko dute, eta gainerako guztiak kopako.

Bihar eta etzi, ligako lehen jardunaldia jokatuko dute. Aldiz, kopako lehen kanporaketak apirilaren 10ean eta 11n jokatuko dituzte.

Antolatzaileek zehaztutako egutegiaren arabera, finalak maiatzaren 8an eta 9an jokatuko dituzte.

**oharra**

DEIALDIA

> **Argizaiola erakusketa ikusgai domekara arte**

2009an Euskal Herriko argazki lehiaketa ezberdinetan saritutako erretratuak 18:00etatik 20:00etara ikus daitezke. Besteak beste, Josu Garai oñatiararen *Khoton* eta *Elurretako errekatxoak* izeneko argazkiak ikus daitezke. Guztira, 50x40 zentimetroko 34 erretratu daude.



Senidetza ospatzeko antolakuntza lanetan ibili diren antzuolar batzuk.

GOIENKARIA

## SENIDETZEA &gt; OSPAKIZUNA

# Urteurreneko azken jaia apirilaren 18an izango da

Aiherran egingo duten jaiarekin 25. urteurreneko ospakizunei amaiera emango diete

## ARANTZAZU EZKIBEL &gt; ANTZUOLA

Apirilaren 18an egingo dute Aiherraren eta Antzuolaren arteko 25. urtemugako azken jaia. Bere egunean Antzuolan egin zuten moduan -urriaren 11n-, oraingoan, Antzuolarrak Aiherrara joango dira eta han egingo dute jai handia.

Egun horretan Udalak autobusa doan jarriko du Aiherrara joateko. Aurrez, baina, izena eman beharko da. Interesa dutenek udaletxera jo beharko dute; 943 76 62 46 telefonora deitu; edo [kultura@antzuola.net](mailto:kultura@antzuola.net) helbidera idatzi. Dagoeneko aukera dago izena emateko.

## EGINGO DITUZTEN EKINTZAK

Aiherran egingo duten azken festarako antolatu dute programa: bi herrien arteko herri kirolak egingo dituzte, umeen antzerkia, herri biak lotzeko erakundearen arteko ekintza sinbolikoa, luncha, bazkaria eta bazkalondoren kantu eta dantza saioa egingo dute.

Modu horretan amaitutzat emango dituzte senidetzea ospatzeko egin dituzten ekitaldiak.

## oharrak

## AFARIA

> **Haitiren aldeko afari solidarioa zapatuan Olalden**

Anelkarrek antolatuta, elkartasun afaria egingo dute zapatuan Olalde elkartearen, 21:30ean.

## LEHIAKETA

> **Argazki lehiaketan argazkiak aurkezteko azken eguna, apirilaren 30a**

*Antzuola eta antzuolarrak argazki lehiaketa.* Hirugarren

urtez jarraian egingo dute aipatutako lehiaketa, eta lanak apirilaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira Antzuolako udaletxean. Parte hartu ahal du herrian jaio edo bizi den edonork.

## HITZORDUA

> **Ipuin kontalaria Torresoroan zapatuan, 18:00etan**

Eñaut Gorbea ipuin kontalaria saioa bihar, zapatua, Torresoroan, 18:00etan.

## FUTBOLA

> **Antzuolak bihar goizean jokatu du Estalan, 11:00etan**

Erregional preferente mailako taldeak bihar, zapatua, jokatu du Estalan, 11:00etan. Sorluzeren aurkako lehia izango da.

## TXISTULARIEN DIANA

> **Txistularien ohiko diana domekan 10:00etan**

Txistularien diana herrian zehar domekan, 10:00etan.

## ARMARRIA &gt; HITZALDIEN BALORAZIOA

## Hitzaldiek balio izan dute historia "ez ofiziala" erakutsi eta armarrria ezagutzeko

Udalak oraindik ez du zehaztu zeintzuk izango diren hurrengo pausoak; asmoa da prozesua aurten bukatzea

ratu du. Izan ere, herritar batzuen iritzia da armarrarian agertzen diren Maria eta erregea ere kentzea, eta armarrri guztiz berria egitea.

## GIPUZKOAKO ARMARRIA

*Contexto histórico de la supuesta batalla de Belate izan zen lehenengo hitzaldia; bigarrena Floren Aozek egin zuen: 1512: Estatu independente baten inbasioa.* "Jendea gehien harritu duena izan da orain arte ofizialki erakutsi digutena eta Nabarraldeko kontatzen duena ez datozela bat", dio Olabarriak.

Rosa Aierbek, martitzenean, Gipuzkoako armarriaz berba egin zuen. "Agirre lehendakariak 36an eman zituen lehenengo pausoak; orain dela 30 urte Gipuzkoako armarritik kendu ziren kanoiak. Sekuentzia logika baten barruan sartzen da", azaldu du Olabarriak.

## A.E. &gt; ANTZUOLA

Kultura zinegotzi Patxi Olabarriaren esanetan, armarrrien gaineko hitzaldiekin hasieran jarritako "helburuak bete" egin dira. Herritarrengan "interesa" piztu duen gaia izan da armarririk 12 kanoiak kentzearena.

"Hitzaldietan parte hartu dutenengan ikusi dugu jendea kanoiak kentzearen alde dagoela", dio Olabarriak. "Zailagoa izango dena da behin kanoiak kendutakoan armarrria nola geratuko den adostea", gaine-



ANTZUOLAKO UDALA

## 'Emakumea lanean' erakusketa

Gizarte Ongizate Sailak antolatuta, *Emakumea lanean, etxean eta kanpoan* erakusketa egiteko 50 argazki inguru jaso dituzte udaletxean eta Gizarte Zerbitzuetan. Herritarren parte-hartzea ezinbestekoa izan da erakusketa antolatzeke. Apirilaren 17an, 18an, 24an eta 25ean izango da erakusketa Olanaren etxean. Irudian, argazkietako bat.

**Calburu altzarte**  
GOZOTEGIA - OKINDEGIA - KAFETEGIA

PRODUKTU EZBERDINAK  
ESKAINTZEN DIZKIEGU GURE BEZEROEI

KALEBARREN, 18 - ANTZUOLA - 943 76 62 94  
OLARTE, 12 - ARRASATE - 943 79 81 56  
DURANA, 2 - ARETXABAETA - 943 79 07 88

**EGAÑA**  
Era guztietako arotz lanak  
Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak  
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

MUJIKA  
HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren, 1.  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34

DEIALDIA

## AHTren kontrako ekitaldiak

Gazte Asanbladak deitu ditu ekintzok biharko, zapatua

E.M. > ARAMAIO

*Ri-Rau egurra emungotzau* lelopean eta Gazte Asanbladak deituta, AHTren aurkako ekitaldiak izango dira bihar, zapatua, Aramaion. Plaza ondoko biribilgunean 10:00etan hasita, AHTko lanen eragina ikusteko mendi ibilaldia izango da; obretaraino hurbilduko dira. Eta 14:00etan bazkaria izango da eskolako jangelan. Txartelak Aramaioko tabernetan eskuragarri daude, 12 eurotan. Bazkalostean, bideo emanaldiak, trikitaliak eta bertsolariak izango dira, giroa alaitzeko. 18:00etarako poteoa iragarrita dago, plazan hasita, eta amaitzeko, 20:00 aldera, kontzertua izango da eskola azpian, Gorroto eta Alta Tension taldeekin eta erromeria talde batekin.



SAN MARTIN

## Zuhaitz berriak San Adrianen

Zuhaitz Eguna ospatzeko, San Martin eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleek gorostiak, pagoak eta haginak landatu zituzten San Adrian ermitaren ondoan aurreko egunean, martxoaren 18an. 80 ikaslek hartu zuten parte eta Urkiolako hiru begirale eta Udaleko Jon Errasti eta Joseba Jauregi zinegotziak ere ikasleei azalpenak eta laguntza ematen izan ziren. Udala arduratu zen ondorengo hamarretakoaz eta bazkariak. Haur Hezkuntzako neska-mutikoei martxoaren 5ean egin zuten Zuhaitz Eguneko landaketa, Andra Mari basiliza ondoan.

UDALA > AURKEZPENA

## Biomasko galdara eta 'Baserri Barri'

Erretako egurrekin Ibarako etxebizitzak berotzea lortuko litzateke

M. MANIAS/E. MENDIBIL > ARAMAIO  
*Aramaio*ko aurrerakin proiektua aurkeztu zuten astelehenean udaletxean. Proiektuak bi proposamen jasotzen ditu: batek, egurra erreta Ibarako etxe guztiak berotzeko sarea osatzea; eta bestetik, herriko lehenengo sektoreari bultzada emateko *Baserri Barri* ekimena martxan ipintzea.

**ENERGIA AURREZTU**

Udalak energia aurreztu nahi du eta CO2 emisioak gutxitu. Horixe da, hain justu ere, bio-

masako galdaren berokuntza sistemak ahalbidetuko duena. Kultura etxearen ondoan galdara handi bat ipiniko litzateke, eta bertan erretako egurrekin Ibarra osoko etxebizitzak berotu. Aurrekontua 2,4 milioi euro inguru da.

*Baserri Barri* proiektuarekin, aldiz, lehenengo sektorea eta baserri mundua indartu nahi da, kudeaketa ereduak aldatuta. Besteak beste, Aramaioko baserrietan ekoizten diren produktuekin marka bat sortzea da asmoa, eta 3,6 milioi euro bideratuko dituzte.

Udalaren asmoa da erakunde publikoen partetik dirulaguntza jasotzea. Asier Agirre alkatearen arabera, herritarrei aurrerago aurkeztuko zaizkie proiektu horiek zehaztasun handiagoarekin.

> IBERDROLA

### Argindar etenaldia egingo dute domeka goizean Aramaion

Argindarraren banaketa sarean egin beharreko hobekuntzak eta handitze lanak direla eta, argi mozketak izango da Aramaio osoan domekan, martxoaren 28an, 08:00etatik 11:30era. Iberdrolak egindako eskaera bategatik egingo dute argi mozketak eta alde aurretik erabiltzaile guztiei barkamena eskatu nahi diete. Oletan izan ezik, Aramaio osoan izango da argi mozketak.

> ERREPIDEA

### Asier Agirre alkatea Errepide diputatuarekin elkartuko da gaur

Asier Agirre alkateak Arabako Errepide Saileko diputatu Luis Alberto Zarrabeitiarekin, Diputazioko teknikariekin eta Adifeko ordezkariarekin bilera izango du gaur, egubakoitzak, Arabako Diputazioan, goizez. Besteak beste, A-2620 errepidearen mozketak eragindako kalteak, Aramaio eta Arrasate arteko errepidearen konponketa eta bide alternatiboa izango dituzte aztergai.

> JAIK

### San Martin jaiak prestatzeko bilera astelehenean

Astelehenean, martxoaren 29an, Jai batzordeak bigarren bilera egingo du udaletxean, 19:00etan, San Martin jaiei begira. Azken urteotan gertatu den moduan, herriko kultura taldeekin batera Jai batzordea zabala izatea da Udaleko arduradunen asmoa. Ainara Inuntziaga Kultura zinegotziak eta Itxaso Aspiazu teknikariak dei egin diete herriko taldeei bileran parte hartzera.



Udaletxean astelehenean egindako aurkezpeneko irudi bat.

MIREN MANIAS

Euskaraz txakurrei bakarrik?  
Txakurrek uau uau egiten dute baina!!!



ELGETA &gt; UDALA

# Markel Olano Elgetan izan da

Besteak beste, saihebidia, Aixolako zentroa eta patronatua izan zituen hizpide udal ordezkariekin

LARRAITZ ZEBERIO &gt; ELGETA

"Gipuzkoako herri guztiak bisitatzeko ari naiz, eta Elgetara ere etorri naiz". Markel Olano diputatu nagusiaren hitzak dira. Astelehenean izan zen herrian. Azpiegituretako diputatu Eneko Goiarekin batera etorri zen. Lau udal ordezkari zituen Elgetan zain; Oxel Erostarbe alkatea eta Ana Gillegi, Patxi Basauri eta Iñaki Ugarteburu zinegotziak. Herriak dituen premiak izan zituzten

aztergai. "Saihebidiearen lanak, garraio publikoa, gasa eta telekomunikazioak", esan zuen Oxel Erostarbe alkatea bileran. "Aixolako zentroari buruz eta Domingo Iturbe patronatuaren egoerari buruz ere jardun dugu".

HARTUTAKO KONPROMISOAK

Olanok konpromisoa hartu zuen saihebidiearen exekuzio proiektua aurrean idazteko. Agindu zuen,



Markel Olano eta Eneko Goia patronatuaren eraikina ikustera eraman zituzten. L.Z.

halaber, Aixolako zentroaren gaineko informazio guztia izango duela Elgetako Udalak. Gainerako puntuen inguruan ez zuen konpromiso zehatzik hartu.

OPOSIZIOA ERE EKITALDIAN

"Ditugun arazoak bertatik bertara ezagutzera etorri da. Lehenengo pauso bat da, eta positiboa", esan du Iñaki Ugarteburuk.

ELGETA

# Erretiratuaren batzordean bi lagun gehiago

Luis Mari Arantzeta eta Fermin Iribar sartu dira zuzendaritzan

L.Z. &gt; ELGETA

Urteko batzar orokorrean hartutako erabakia da. Aurreantzean, zazpi beharrean bederatzikide izango ditu zuzendaritza batzordeak. "Zuzendaritzakook hilaren 31n elkartuko gara karguen banaketa egiteko", esan du Zezilio Totorikaguenak. "Batzordean bi lagun gehiago egoteak ardurak gehiago banatzea ahalbidetuko du. Hori zen helburua".

LANAK, JAI OSTEAN

Aurreko astean egindako urteko batzarrean, Ozkarbin egitekoak diren irisgarritasun lanak ere aipatu zituzten. "Esan digute jai ostean hasiko dituztela lanak", esan du Totorikaguenak. "Pozik daude bazkideak".

ORDAINKETAK, BANKU BIDEZ

Erretiratuak, bestalde, ezin dute aurreantzean Ozkarbin ordainketarik dirutan egin. Eskatzen zaie kontu korronteko zenbakia batzordeko baten bati ematea.

ELGETA &gt; HEZKUNTZA

# Aizpea Goenaga eta Pello Añorga, eskolan bisitari

L.Z. &gt; ELGETA

Aste berezia izan da honakoa Herri Eskolan. Kultura Astea egin dute, eta askotariko jokoak eta ekimenak egin dituzte zentroko neska-mutikoek. Lehen Hezkuntzako gazteek, alde batetik, eta Haur Hezkuntzako umeez, bestetik, kultura zirkuitua egin dute gelaz gela eta filmak ikusi dituzte. Bisitak ere izan dituzte.

LITERATURAZ ETA ANTZERKIAZ

Lehen Hezkuntzako gazteek Aizpea Goenagaren bisita izan zuten martitzenean. Literaturaz eta antzerkiaz aritu ziren aktore eta idazlearekin.

Haur Hezkuntzako umeez, berriz, Pello Añorgaren ipuin kontaketa saio izan zuten eguaztenean. Aste aberasgarria izan da guztiendako ere.



Aizpea Goenaga, martitzenean, Herri Eskolako gazteekin.

TXOMIN MADINA

## oharrak

ZUHAITZ EGUNA

> Domekan 10 zuhaitz landatuko dituzte Asentzion

Udalak domekan Asentzion egingo den zuhaitz landaketara gonbidatu ditu Herri Eskolako neska-mutikoak. 10:30erako egin dute hitzordua Asentzioko apartokalean. "Aukera paregabea izango da Asentzion egin diren lanak ikusteko", adierazi du herriko alkate Oxel Erostarbek. Hamar zuhaitz landatuko dituzte.

ERROMERIA

> Jainaga eta Narbaitza trikitilariak Herrixa dantzaren saioan domekan

Primerako erantzuna izan dute Herrixa dantzaren ekimenaren barruan Espaloian egindako lehenengo bi saioek. Domekan, hilak 28, dantza saio berezia izango da; izan ere, zuzeneko musikarekin egingo dute. Jainaga eta Narbaitza trikitilariak alaituko dute martxo dantza saioa. Ohikoa den moduan, 19:00etan izango da.

IKASTAROA

> Yoga irakasle titulua eskuratzeko ikastaroa, apirilaren hasita

Yoga Integratuko eskolak antolatuta, apirilaren 17an egingo dute lehenengo saioa. Zortzi hilabeteko iraupena izango du; hilean bi zapatutan elkartuko dira. Ikastaroaren prezioa 1.350 euro da. Argibide gehiago 675 801 835 telefono zenbakian edo [www.yogaintegrado.com](http://www.yogaintegrado.com) helbide elektronikoa.

## frontenis txapelketa

### Finalerdietarako bi txartel daude jokoan domekako partiduetan

Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi eta Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga finalerdietarako matematikoki sailkatuta daude. Kontua da beste bi bikoteak zeintzuk izango diren. Domekan argituko da guztia.

PARTIDUAK, HILAK 28, DOMEKA (10:30)

1. Adrian Gorostiza-Asier Osoro/Oskar Sarasua-Xanti Dosuna
2. Iban Retolaza-Xabier Ubea/Eneko Maguregi-Andoni Elortza
3. Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga/Asier Untzetabarrenetxea-Asier Morales

LEINTZ GATZAGA &gt; IKASTAROA

# Zoru pelbikoa indartzeko saioak

Izenemate epea martitzenean bukatuko da

MIRARI ALTUBE &gt; LEINTZ GATZAGA

Udaleko Gizarte Zerbitzuek zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa antolatu dute. Apiril eta maiatz

arte izango dira saioak Gatzagan bertan, baina izena aurrez eman behar dute interesatuek, udaletxera deituta. Martitzenean,

hilak 30, bukatuko da horretarako epea. Ikastaroaren kostua 30 euro da.

EMAKUME GUZTIENDAKO

Amazulo elkarte fisioterapeutas izango dira gidari ikastaroan. Emakumeendako dira saioak, batez ere erditu ondoren edo menopausia sasoiaren daudenendako, histerektomia izan edo pixa galtzen dutenendako eta orokorrean gorputzaren funtzionamendua ezagutu gura dutenendako. Helburu nagusia zoru pelbiko edo

perineoaren funtzioa ezagutzeko da, arazoak prebenitzen hasi eta tratamenduaren berri ematea.

Ikastaroa hasiko dute argibide teorikoak emanaz, eta praktikak egingo dituzte gero. Hainbat saio izango dira –egunak eta orduak oraindik zehaztu barik– eta azken saioan norberaren zoru pelbikoaren balorazioa egiteko aukera eskainiko dute. "Emakumearen bizitza kalitatean zeresan handia duela perineoaren funtzionamendu egokiak", diote Amazulo elkarte fisioterapeutek.

&gt; INTERNET

### Ikastaroak egiteko aukera dago gaur KZgunean

Aitor Madrid dinamizatzailea izango da gaur arratsaldean KZgunean (16:00-20:00). Herriarren zalantzak erantzuneko dituzte eta ikastaro motzak –bi ordukoak– egiteko aukera eskainiko du. Gainera, hainbat ikastaro berriak dira; besteak beste, Audacity eta Draw programen gainekoak.



Ezkerrean Yoldi, airez pilota astintzeko unean Onsalo zain duela; goian eskuman torneoko lau pilotari onenak, Soraluze kooperatibako ordezkariekin; behean Muguruza, atzean Larrañaga duela.

XABIER URTZELAI

PILOTA > BERGARAKO LAU T'ERDIKO SORALUCE KOOP. SARIA

# Unai Ontsalok jantzi du Bergarako lau t'erdi barruko lehenengo txapela

ENEKO YOLDI

18-22

UNAI ONTSALO

XABIER URTZELAI > BERGARA

Finaleko jaialdiak ez zuen hutsik egin, pilotariek neurria eman zutelako. Txapela jantzeko lehian Yoldik eta Ontsalok partidu parekatua jokatu zuten, baina azken txanpan, markagailuak 17-17 erakusten zuela Ontsalok bi tanto egin zituen sakez, eta horrek min egin zion Uhartekoari: "Nekatuta zaudene-

an, bi tanto sakez egitea gauza handia da", adierazi zuen partidu amaieran txapeldunak.

Hain zuzen ere, Ontsalok hasi zen indartsu (0-3), baina Yoldik berehala erakutsi zuen ez zuela erraz amorerik emango. Lehenengo txaloak 5-4koan, Yoldik tantoa amaitzen asmatu ez eta Ontsalok batera eta bestera korrika ibili ostean tantoa eginda. Biak amorruez, *mekaguenka*, batak tantoa egin zuelako eta besteak aukera alferrik galdu zuelako; tanto horretan Ontsalok egin zuen moduko korrika saioek, baina, ordaina izaten dute.

Parean jarraitu zuten biek, bai akatsak egiten, baita tanto-

ak amaitzen ere (6-6, 10-13, 14-14, 17-17). Yoldi izan da txapelketa osoan sakea ondoen egin duena, baina finalean Ontsaloren aurrean ez zuen errentagarritasun handirik eskuratu.

Partidua gogortzen hasita zegoen ordurako, eta, aurreratu moduan, Ontsalok sakez lortutako bi puntuko aldea erabakigarria izan zen (17-19). Bazirudien Yoldik partidua berdinduko zuela berriro (18-19), baina ezin izan zion tanto hari ere jarraikortasunik eman. Ontsalok egindako 18-20koa ederra izan zen, eta 18-21ekoan Uhartekoak GOITBko kamera azpian amaitu zuen, zaballean, txapa ondoan. Haraino era-

man zuen Ontsalok, azken estokada zezenari (18-21). Ordura arte ez, baina orduan amore eman zuen Yoldik, fisikoki leher eginda; azken tantoa amaituta (18-22), zaleen txalo artean, lurretik altxatzen lagundu zion txapeldunak, Ontsalok.

HIRUGARREN, LARRAÑAGA

Finalaren aurretik Larrañaga eta Mugurutza bergararra lehia-tu ziren -Aitor Mendizabalen ordezkariekin-. Hala, *sari* polita Mugurutzarendako, baina baita konpromisoko partidua ere, "etxekoen aurrean bost tanto egitea ez zelako gozoa izango". Bada, ez, partidu ederra izan

zen -finalak baino emozio handiagoa izan zuen-, nahiz eta hasierako tantoetan biek ala biek huts asko egin.

Larrañagak alde polita hartu zuen, aireko jokoari esker (13-19), baina Mugurutzak tantoa egin, pilota aldatu eta partidua berdindu zuen (19-19). 20-20koa arratsaldeko tantorik politena izan zen; biak leher eginda, eta lehenengo koadro barruan tantoa amaitu ezinka; mahoneroak bi paretako ona. Txalo zaparrada. Bergarakoak eskuan izan zuen garaipena (21-20), baina ez zuen errematatu. Errematerako, Larrañagaren azkena (21-22), grabatzekoa.

Unai Ontsalok > Txapelduna

## "Hutsak egin ditugu, baina baita tanto politikak ere"

X.U. > BERGARA

Unai Ontsalok (Areso, 1985) txapela jantzita erantzun zien finalaren ostean GOIENKARIAko galderei, oraindik izerditan.

Partidu gogorra izan da, parekatua.

Bi, detalle txikiak erabaki dute norgehiagokan. Azken txanpan sakez bi tanto egitea gauza

handia da, norbera nekatu ez eta gainera abantaila hartu. Hor egin diot min.

Gustura gaur egindako partiduarekin?

Gaur bai, Mendizabalen kontrako finalerdian ez nintzelako batere gustura geratu, sentsazio txarrarekin joan nintzen etxera. Gaur, baina, lan

handia egin dugu; hutsak izan ditugu, baina baita tanto politikak ere.

Torneo polita izan da.

Oso polita. Ikusi da afizionatu mailako pilotari onenak izan direla txapelketan eta horrek asko esaten du. Gainera, finalerdian eta finala oso jaialdi ederrak izan direla uste dut.



X.U.

Eneko Yoldi > Bigarren sailkatua

## "Fisikoki Ontsalok hobeto eutsi dio"

"Partidu gogorra izan da, biak neka-neka eginda iritsi gara norgehiagokaren azken zatira, baina tarte horretan hark hobeto eutsi diola uste dut; airez ibili naiz, presa larregirekin. Bestalde, pozik nago horrelako maila izan duen torneoa jokatzeko deitu didatelako. Pilotaleku eder honetan, gainera".

Ander Mugurutza > Laugarren sailkatua

## "Ez dut partidua errematatu"

"Zailena egin dut, markagailuan atzetik joan eta berriro ere kontrarioa harrapatu. Baina partiduaren azken zatian ez dut errematatzen jakin. Bestalde, oso gustura geratu naiz egindako partiduarekin. Pena, Aitor Mendizabalek behar zuelako hemen, baina haren ordezkari izan da niretako".





> **GAZTEMANIAK**  
Sarrerak 7 euro kostatuko dira Oñatin eta Arrasaten > 40



> **KONTZERTUA**  
Saio esperimental egingo dute Plaza eta Garmendia txalapartariak > 40

> **PATXI UGALDE**  
15 urte ditu, bergarra da eta piraguismoa maite du: Beti-Busti taldeko kide da eta Espainiako Kopa irabazi du > 42



Ane Larrañaga >  
Euskadi Gazteko esatari ohia

## "Erronka zen Gaztea, dena berria zen-eta"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Gaztea irratiak 20 urte bete ditu asteon. Haren hastapenetan ibilitako Jone Larrañaga antzuolarrak garai haiek gogorazi ditu eta han bizi izandako esperientziaren berri eman digu lerrootan.

**Noiz sartu zinen orduko Euskadi Gaztean?**

Hasieran, 1990. urtean. *Casting-a* egon zen eta proba asko gairatu ostean sei lagun sartu ginen lan egitera. Gauza berria zen, euskaraz ez zegoen-eta horrelakorik. Hizkuntza eta forma aldeetik dena zen ezberdina. Orain eredu asko badaude, garai hartan irratiformulan *40 principales* bakarrik zegoen; hura zen erreferentzia bakarra. Horrelako zerbait egin nahi zen, baina Euskal Herrira egokituta.

Emisioa martxoan hasi bazen ere, aurretik entseatzeko hasi ginen, zuzenean egongo bagina bezala lan egiten. Orduan, euskaraz emititzen zuen bakarra Euskadi Irratia zen. Baina hango hizkera eta tonua ezberdina zen. Eredu berria sortu behar izan genuen.

**Nolakoak izan ziren lehenengo emisio haiek?**

Emisioa 07:00etan hasten zen eta 22:00ak arte irauten zuen. Bakoitzak asteko sei egunetan

egiten zuen lan; aste bakoitzean ezberdina zen jaieguna. Irratian, airean hiru ordu ematen genituen, eta gainontzeko beste hiru ordu horiek prestatzen, musika entzuten eta erreferentzia eta informazioa jasotzen ematen genituen. Horretaz gain, Euskadi Irratirako publizitatea grabatzen genuen eta musika programa bat ere egiten genuen.

**Esperientzia polita, orduan...**

Oso polita. Nik hiru urte eta erdi eman nituen han eta oraindik oso gogoan daukat. Garai harekin eta jendearekin askotan gogoratzen naiz.

**Giroa ona izango zen...**

Bai, hala zen. Gainera, ilusio handiarekin egiten genuen lan. Dena berria zenez, erronka handia zen. *Euskadi Gaztea, musika festa* zen orduko leloa eta horrekin ibiltzen ginen gora eta behe-erdi egun osoan. Gainera, garai hartan dena analogikoa zen; auto-kontrola geneukan; hau da, guk egiten genuen dena. Single eta biniloe-kin ibiltzen ginen, CDak berriak ziren orduan. Gogoratzen naiz, gainera, eta laurden guztietan AEBetan entzuten ziren nobedadeak jartzen genituela. Beste garai bat zen.

**Anekdotarik bai?**

Milaka. Behin Tapia eta Leturiak *Juergasmoa* izeneko diskoa atera zuela. Hura aurkezten hasi eta bukatzean, lapsus baten, *juergasmoa* esan beharrean *orgasmoa* esan nuen. Ez dakit zenbat bider entzun behar izan nuen! Beste behin, kantu berri bat iritsi zen eta aurkezterakoan, titulu asmatu behar izan nuen, ez nuelako gogoratzen. Denak bat-batekoa izan behar zuen, freskotasunik gal ez zezan.



1992an ateratako argazkia; besteak beste, Jone Larrañaga, Irantzu Karrera eta Joseina Etxeberria agertzen dira. JONE LARRAÑAGA

GAUR EGUN LANEAN DAUDEN DEBAGOIENDARRAK



Fermin Etxegoien  
Kazetaria



Arkaitz Billar  
Kazetaria



Oihan Vega  
Kazetaria

**"Nire programan estilo eta garaien arteko nahasketa egiten dut"**

"*Ekaitz perfektua* izeneko programa egin dut beti Gaztean. Lehen 20:00etatik 21:00etara zen eta orain 22:00etatik 23:00etara. Eguneko azken programa da. Formulatik libre dagoen programa da, eta askotariko estiloetako musika jartzen dut; saiatzen naiz estilo eta garaien arteko nahasketa orekatua egiten".

**"Bilakaera handia izan da nirea, saio asko egin ditut-eta"**

"Zortzi urte daramatzat Gaztean; bi hilabeteko ordezkapena egiten hasi nintzen. Sartu nintzenetik, bilakaera handia izan da, saio asko egin ditut-eta: *Coffee Station*, *Top Gaztea*, *Norabide guztiak*, *Elektro-radiograma* eta *Kalefonia*, besteak beste. Orain, *Global funk* egiten dut egubakoitz gauean, musika beltza eta elektronikoa uztartuta".

**"Entzule kopurua hirukoiztu egin da: 110.000 ditugu egun"**

"2007an hasi nintzen. Egun, bi saio egiten ditut: *Top Gaztea*, zapatuan zerrendaren erreposoa egiten dugu; bestetik, domekan, disko berriak aurkezten ditut. Gero, telebistan, *Gaztea Klip* daukat. Gustura nago, bi pasioak uztartzen ditut. Bestalde, irratia bilakaera garrantzitsua izan da azkenaldian, hirukoiztu egin da; 110.000 entzule ditugu egun".



Jone Larrañaga.

M.B.

Abantailaz  
betetako kluba!

Goiena  
kluba

## MARTXOKO ZOKKETA

Telefonoa: 943 25 05 05  
e-posta: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)  
Kuota: 45 euro



### DANBAKAKO HIRU DISKA

Bidali KLUBA DANBAKA  
[Bazkidearen zenbakia]  
5195 zkra.

DANBAKA))))))



### UMEENTZAKO LIBURUAK

Bidali KLUBA LIBURUAK  
[Bazkidearen zenbakia]  
5195 zkra.



### SASKIBALOIRAKO SARRERAK

Bidali KLUBA SARRERAK  
[Bazkidearen zenbakia]  
5195 zkra.



### GOIENAKO PENDRIVE-A

Bidali KLUBA PENDRIVE  
[Bazkidearen zenbakia]  
5195 zkra.



## SARI NAGUSIA URTARRILA-MARTXOA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKKETATUKO DA

### JOCCA RACLETTE



- Grill-plantxa estaldura itsasgaitzarekin eta ateragarria, erraz garbitzeko.
- Ez du oliorik behar.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)

MUSIKA > GAZTEMANIAK 2010

# Gaztemaniekin bat egin dute Arrasate eta Oñatik

Foru Aldundiak asteen aurkeztu du Gaztemaniak 2010 programa; Oñatin bi kontzertu izango dira eta Arrasaten beste bi

LEIRE KORTABARRIA > DONOSTIA

Foru Aldundiaren Haur eta Gazteria Zuzendaritzak bultzatzen duen Gaztemaniak programarekin bat egin dute aurreneko Arrasateko eta Oñatiko udalek, eta bakoitzean bi kontzertu egingo dira aurreneko programa horren eskutik. Eguaztenean aurkeztu zuten Gaztemaniak 2010.

Berritasunetako bat da sarre- ren prezioa igo egingo dela: Aldundiak proposatu die Arrasate eta Oñatiko udalei sarre- ren prezioa gaur egungo 5 eurotik 7 eurora pasatzea; Donostian, 7 eurotik 9 eurora.

"AHALEGIN EKONOMIKO HANDIA"

Haur eta Gazteen Zuzendaritzak bere gain hartu ditu berriz Gaztemaniak programari eusteko konpromisoak, "nahiz eta horrek dakarren ahalegin ekonomiko handia egin beharra krisi ekonomiko larriko testuinguru honetan", arduradunen esanetan. Kontzertu bakoitzaren batez besteko gastua 3.480 eurokoa izango da formatu handietan, eta 2.320 eurokoa, formatu txikietan.

Bestalde, eguneratu egin ditu Arrasate, Oñati, Donostia, Hondarribia eta Zarauzko udalekin zituen lankidetzak hitzarmenak. Udal guztiek eutsi diete programaren gainean hartutako konpromiso ekonomiko guztiei, baina Oñatin lehen baino kontzertu bat gutxiago antolatuko du Aldundiak. Urtarrilean Sorkunek Oñatin egindako kontzertua Gaztemaniekin antolatutakoa izan zen.

GAUR, HONDARRIBIAN

13 kontzertu izango dira aurreneko bi Arrasaten, Hondarribian, Oñatin eta Zarautzen; eta bost, Donostian. Zazpi kontzertu izango dira martxotik ekainera bitartean, eta beste seiak, irailetik abendura bitartean.



Sorkunek Oñatin jo zuen urtarrilean, Gaztemaniak programaren eskutik.

GOIENKARIA

MUSIKA > SAIO DIDAKTIKOA

## Musika tradizionala eta esperimentazioa, Iñaki Plaza eta Jon Garmendiarekin

Kontzertu didaktikoa emango dute gaur, Oñatiko Gaztelekuko Topalekuan, 18:00etan hasita

ENEO AZKARATE > OÑATI

Euskal sustraidun musika dute gustuko Iñaki Plazak eta Jon Garmendiak. Besteak beste, urte askotan jardun dute Kepa Junkerarekin batera. Baina, berezia da haien musika.

Molde, bide eta estetika berrien bila dabilta eta, hala, esperimentazioak erabateko garrantzia dauka haien proposa-

menean. Esaterako, darabilte txistua, alboka eta txalaparta, euskal musika tradizionalako instrumentuak; eta baita perkusioak ere. Baina, horiekin batera darabiltzate haiek propio asmatutako instrumentuak. Eta, hauen artean, nabarmentzekoa da Tublogh izena jarri diotena, PVC materialaz egindako tutuen bidez diseinatua.

Azken bi urteotan musika berriak ikertzen ibili dira eta 20 Hatz Proiekt izenburuarekin bataiatu duten proiektuan murgildu dira: 20 hatzeko proiektua. Hain justu ere, izenburu hori jarri diote iaz argitaratu zuten diskoari. Txalapartari eta trikitiari soinu eta testura berriak aurkitu nahi izan dizkiote.

ASPERTZEKO BETARIK EZ

Gaur, egubakoitza, haien proposamen berritzailea ikusteko aukera izango da Oñatiko Gaztelekuko Topalekuan. Emanaldi didaktikoa izango da, 18:00etatik aurrera. Kepa Junkeraren eta beste batzuen diskoetan parte hartu ostean (Berrogüetto, Ibon Koteron, Faltriqueira, Tejedor...), euren musika bertatik bertara gozatzeko aukera dago. Aspertzeko astirik ez da izango, seguru.





Oihane Isasi, Goiena Telebista errealizatzailea, Azkaraten zubisalto egin ondoren.

# Egin dugu salto

Orain digitalera salto egin dugu:

> **BERGARAN ETA OÑATIN**

Goiena Telebista dagoeneko digitalean:  
BERGARAN, OÑATIN, ARETXABALETAN, ESKORIATZAN,  
ARRASATEN ETA LEINTZ GATZAGAN.

Laster digitalean:  
ANTZUOLAN, ARAMAION ETA ELGETAN.

**Goitb**  
Goiena Telebista  
**Ikustekoa!**

Patxi Ugalde &gt; Piraguista

# "Eslalomeko Espainiako III. kopa hamahiru ehunengatik irabazi nuen"

Piraguismoa gogoko du Patxi Ugaldek. Duela hiruzpalau urte hasi zen Bergarako Betti-busti elkartean. Orduetik hona, hainbat sari irabazi ditu bergararrak eslalomeko modalitatean; besteak beste, kayakean Gipuzkoako txapelkunordea izan da eta eslalomeko Espainiako III. kopa irabazi du. Horrez gain, DBHko hirugarren mailan dihardu Aranzadi ikastolan.

NAROA ODRIÓZOLA &gt; BERGARA

Erreka ondo ezagutzen ditu Patxi Ugaldek. Piraguan sartuta eta arrauna eskuan duela ur korronteen kontra joaten da kolore desberdinetako atek zeharkatuz. Hori egiteko entrenamendu gogorak egiten ditu eta ordu asko eskaintzen dizkio piraguismoari. Harekin izan gara bere esperientziak berba egiteko.

**Ez da oso mundu ezaguna piraguismoarena.**

Ez da oso ezaguna, ez. Zerbait irabazten dutenean telebistan jartzen dute jaitziera, baina bestela ez da ezer agertzen.

**Zenbat modalitate ditu piraguismoak?**

Modalitate asko daude, baina ezagunenak dira rodeoko kayakak (olatuak hondartzan eta errekan hartzea), kayak surfa (surf egitea, baina beste piragua berezi batzuekin), ur-biziak (abiadurarekin jokatuz) eta eslalom ur-biziak. Nik azkeneko hori egiten dut. Bi ate mota daude: berdeak eta gorriak. Ate berdeetan jaitzi egin behar da eta gorrietan buelta eman behar zaie. Gutxienez, hemezortzi ate dira, eta gehienez, 26.

**Nondik datorkizu piraguismoarekiko zaletasuna?**

Lagun batek piraguismoa egiten zuen eta egun baten harekin probatzera joan nintzen. Orduetik hona, piraguismoa egiten dut. Lehen, futbolekin jokatzen nuen, baina ez nintzen oso ona eta utzi egin nuen.

**Betti-busti kirol elkarteko kide zara. Noiztik? Zenbatero osatzen duzue taldea?**

Duela hiru edo lau urte hasi nintzen elkartean. Bi talde daude: infantiletik beharokoa eta kadeteena. Kadeteen taldean bosparei lagun gara.

**Kayakean Gipuzkoako txapelkunorde izan zara. Zer moduko esperientzia izan zen?**

Oso esperientzia ona izan zen. Askok kostatzen da irabaztea eta emozio handia sartzen zaizu lortzean. Betti izan ditut zalantzak irabaziko ote nuen edo ez, baina aurtengo txapelketan ez ditut hainbeste zalantza izan.

**Hori gutxi balitz, eslalomeko Espainiako III. kopa irabazi duzu. Zer sentitzen da?**

Ezin da deskribatu. Emozio handia sentitzen da. Galizian



NAROA ODRIÓZOLA

PERTSONALA

**Herria:** Bergara. **Adina:** 15 urte. **Ikasketak:** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren maila egiten dihardut Aranzadi ikastolan. **Zaletasunak:** Bizikletan eta patinetean ibiltzea, piraguismoa... **Kirolari bat:** Joan Crespo piraguista. **Erreka arriskutsu**

**bat:** Frantziako Bur Sanmaurice. **Ikusitako azken filma:** Jason Friedberg eta Aaron Seltzer-en *Casi 300*. **Komiki bat:** Francisco Ibañezen *Mortadelo eta Filemon*. **Bizi izateko leku bat:** Bergara. **Bisitaturiko lekurik politena:** Praga.

jokatu zen txapelketa eta hamahiru ehunengatik irabazi nuen.

**Zenbat denbora eskaintzen diozu piraguismoari?**

Asteko sei egun eskaintzen dizkiet. Entrenamenduak planifikatuak egoten dira eta horien arabera denbora luzeagoa edo laburragoa eskaintzen diot.

**Nolakoak izaten dira entrenamenduak?**

Batzuetan korrika egiten dugu, gero gimnasioa eta gero uretan aritzen gara. Entrenamendu mota asko daude uretan egiteko: teknika, lehiaketa simulazioak, eta abar.

**Piraguismoa egiteko indarra eduki behar da?**

Jende askok pentsatzen du indarra bakarrik dela, baina teknikak ere asko egiten du. Guztia ez da indarra.

**Eta kirol gogorra da piraguismoa?**

Oso gogorra da, bai psikologikoki eta bai fisikoki. Batzuetan, burua nahasirik daukatzenean, ez duzu ondo pentsatzen eta akats batetik guztia gal dezakezu.

**Inoiz beldurrik izan duzu?**

Askotan. Frantzian izan nintzen piraguismoa egiten den erreka natural baten eta beldur handia pasatu nuen bertan. Erreka oso handia zen eta ez nekien nondik nenbilen ere...

**Bakarkako kirolen alde on eta txar bat.**

Egiten duzun guztiak zuri bakarrik eragiten dizu. Hori da bakarkako kirolek duten alde ona. Txarrari dagokionez, guztia zuk egin behar duzula eta ez daukazula inor laguntzeko. Lehiatzeko, bakarkako kirolak nahiago ditut, baina lagunekin jokatzeke, taldekoak.

**Ikasketei dagokienez, zer zabil-tza ikasten?**

DBHko hirugarren maila egiten dihardut Aranzadin. Ez dut pentsatu zer egingo dudan gero, oraindik denbora luzea daukat eta horretarako.

**Bestelako zaletasunik badaukazu?**

Bizikletan ibiltzea gustatzen zait. Saltoak egiten ibiltzen naiz. Patinetean ibiltzea ere asko gustatzen zait.





## hildakoak

- **Maria Arana Astigarraga.** Bergaran, martxoaren 16an. 90 urte.
- **Antonio Ugarte Aiausti.** Oñatin, martxoaren 17an. 79 urte.
- **Maria Larrañaga Larrañaga.** Bergaran, martxoaren 17an. 90 urte.
- **Txomin Ribera Etxebarria.** Oñatin, martxoaren 18an. 83 urte.
- **Maria Cristina Salazar Larrañaga.** Arrasaten, martxoaren 19an. 86 urte.
- **Ventura Martin Martin.** Bergaran, martxoaren 19an. 89 urte.
- **Julian Erostarbe Leibar.** Oñatin, martxoaren 19an. 77 urte.
- **Eugenia Idigoras Okina.** Arrasaten, martxoaren 20an. 75 urte.
- **Alfonsa Martin Martin.** Oñatin, martxoaren 20an. 92 urte.
- **Marina Romero Sainz.** Arrasaten, martxoaren 21ean. 80 urte.
- **Maria Dolores Ugalde Garitano.** Bergaran, martxoaren 22an. 92 urte.
- **Alberto Kortabarria Anduaga.** Oñatin, martxoaren 23an. 76 urte.
- **Juan Antonio Romero Martinez.** Arrasaten, martxoaren 24an. 85 urte.
- **Nagore Aranburu Suarez.** Oñatin, martxoaren 25ean.



Aretxabaletako **Leire Arenaza** eta Begoñako **Koldo Duarte** Aretxabaletako udaletxean ezkonduko dira gaur, martxoak 26. Ondoren, eztei-bidaia Birmaniara egingo dute. Etxekoen partetik, zorionak eta ondo pasatu eguna!



Arrasateko **Nerea Bergaretxe** eta **Roberto Carabias** martxoaren 27an ezkonduko dira Uribarriko elizan. Ondoren, Akebaso jatetxean bazkaria egingo dute. Eztei-bidaian Estatu Batuetara eta Hawaiira joango dira. Familia eta lagunen partetik, zorionak!


URTEURRENA

### Santiago Anduaga Guridi

2009ko martxoaren 21ean hil zen, 82 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan, martxoaren 27an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren eliza nagusian ospatuko da.

*Santi, zu ezagutu eta maitatzeko zortea izan genuenok, bihotzean zaramatzagu eta ez zaitugu inoiz ahaztuko.*



Bertaratuko zareten guztioi, eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

### Isabel Arabaolaza Inza

2009ko martxoaren 30ean hil zen, 87 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan, martxoaren 27an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren eliza nagusian ospatuko da.

*Maitasunez, beti izango zaitugu gure bihotzean. Bere familia.*



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

5. URTEURRENA

### Aritz Azpiazu Bengoa

2005eko martxoaren 25ean hil zen.

*Beti izango zara gurekin.*



Etxekoak. Oñatin, 2010eko martxoaren 26an.

ESKER ONA

### Maria Larrañaga Larrañaga

Bergaran hil zen 2010eko martxoaren 24an, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2010eko martxoaren 26an.

ESKER ONA

### Maria Arana Astigarraga

Roman Igarzaren alarguna

Bergaran hil zen 2010eko martxoaren 16an, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2010eko martxoaren 26an.

ESKER ONA

### Juanita Aguirre Osoro

Pablo Zumelagaren alarguna

Arrasaten hil zen 2010eko martxoaren 16an, 92 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2010eko martxoaren 26an.

OROIGARRIA

### Nagore Aranburu Suarez

2010eko martxoaren 25ean hil zen.

*Bizi izan zara adorez eta erakutsi diguzu jarraitzen kemenez. Zure irrijarrea gurekin geratzen denez, betiko gure bihotzean izanez, agurtzen zaitugu geroarte esanez.*



Zure kuadrillia eta lagunak. Oñatin, 2010eko martxoaren 26an.

MEZA

### Eugenia Idigoras Okina

Arrasaten hil zen 2010eko martxoaren 20an, 75 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza domekan, martxoaren 28an, 11:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:

**Euskalduna**  
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia  
Etengabeko zerbitzua  
Lore koroak  
Eskelak  
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99  
e-posta: euskalduna@harrespil.net

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera.

**Eskelaren prezioa: 120 euro.**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **160** euro.

**Goienkaria: astero, 36.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**



# Martxoak 26-31

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

## Jokoa



ARRASATE

### > 26. doke txapelketa jokatu dute etzi, domeka, Arrasateko gaztetxoek

Gazte mailako (14 urtera arteko) 26. doke txapelketa jokatu dute etzi, domeka, Monterron parkean, 11:00etan. Apirilaren 2an, berriz, 30. elkarten arteko doke txapelketa izango da. SUDC elkarteak antolatzen du.

## Artea



OÑATI

### > Musika saio didaktikoa egingo dute Plaza eta Garmendia txalapartariak

Txistua, alboka, txalaparta eta eurek asmatutako beste instrumentu batzuk joaz, euskal sustraidun musika esperimentazioarekin nahastuko dute Iñaki Plazak eta Jon Garmendiak, gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 18:00etan.

## Musika



ARRASATE

### > Bitter Honey taldeak lehen diskoa aurkeztuko du kontzertuan

Danbaka lehiaketan parte hartu zuen Bitter Honey taldeak *Songs of love & destruction* diskoa aurkeztuko du zuzeneko baten, gaur, egubakoitza, 3 aretoan. Arrasateko Cool Circus taldeak ere joko du. 23:00etan hasiko da emanaldia.

aretoan, eta zabalik egongo da apirilaren 15era arte, honako ordutegian: martitzenetik egubakoitzera, 18:30-21:00; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:30-21:00; astelehen eta jaiegunetan itxita egongo da.

Inaugurazioa gaur, egubakoitza, Ikusiarte aretoan (Correria, 8), 18:00etan.

ARRASATE

### > Jabego publikoko bideen inbentarioaren gainekoak

Arrasateko jabego publikoko bideen inbentarioaren gaineko erakusketa egongo da Kulturaten. Garai bateko bide asko dagoeneko ez dira erabiltzen, eta erakusketarekin nahi da Udalak egindako inbentario lana eta herritarrek ekarri dutena ezagutaraztea.

Kulturateko klustroan, martxoaren 28ra arte.

ARETXABALETA

### > Gipuzkoako txakurren gaineko argazki erakusketa

Manuel Montielek Gipuzkoako herri guztietako txakurren argazkiak ipiniko ditu ikusgai. Gaur, egubakoitza, irekiko da erakusketa.

Arkupun, egunero 11:00-13:00 eta 18:00-20:00; zapatuetan, 11:00-13:00; domeka eta jaiegunetan, itxita.

BERGARA

### > Hildakoak hilobietatik ateraz, duintasanak berreskuratuz

*Hildakoak hilobietatik ateraz, duintasanak berreskuratuz* delako erakusketa ipini du Aranzadi Elkarteak, Eusko

## Musika

BERGARA

### > Orfeoi Txiki, Orfeoi Txikitxo eta Gabero taldeen kontzertua

Orfeoi Txiki, Orfeoi Txikitxo eta Gabero taldeek emanaldia egingo dute.

Gaur, egubakoitza, Mariaren Lagundiaren elizan, 19:30ean.

BERGARA

### > Ganbara Gazte eta Gaberoren musika erlijioso eta modernoa

Musika erlijiosoari klasiko itxura kendu eta XXI. mendeko ukitua emanda, kontzertua egingo dute Oñatiko Ganbara Gazte eta Bergarako Gaberok. Obrak erlijiosoak dira, baina gaur egungo ukituarekin.

Etzi, domeka, Mariaren Lagundiaren elizan, 19:00etan.

OÑATI

### > Ganbarak 3. munduko umeen aldeko kontzertua egingo du

Ganbara kantu eskolako ume eta gazte abesbatzek udaberriko kontzertua egingo dute, eta eskolako harrobi osoak hartuko du parte: kantu tailerrak I eta II, Ganbara Txikitxoak, Ganbara Txikik eta Ganbara Gazteak. 3. munduko umeen askatasun eta bakearen gaineko argazki eta bideo muntaia bat izango dira, eta gai horren gaineko abestiak abestuko dituzte.

Bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 19:00etan.

ARRASATE

### > Distorsion eta Rat+zinger taldeen kontzertua

Distorsion 80ko hamarkadako punk taldeak kontzertua egingo du. Rat+zinger taldearekin. Sarrera 10 eurotan salduko dute alde zurretik, eta 12 eurotan, leihatilan.

Bihar, zapatua, 3 aretoan, 23:00etan.

## Antzerkia

ESKORIATZA

### > 'El príncipe de mentiras' bakarriketa ikusteko aukera

Eduarne Agirrezabala aktoreak *El príncipe de mentiras* delako antzezlanaren egingo du. Emakume batek bikotean izandako bizipenak kontatuko ditu, harreman hasieran bion artean zegoen kimikatik gaur egungo tratu txarren mugaraino. Sarrera doakoa da.

Gaur, egubakoitza, unibertsitatean, 22:30ean.

ARRASATE

### > 'El txou de Patxi' antzezlanaren egingo du Gorka Aginagaldek

Patxi Arrigagorritxorriberrigoitia pertsonaiaren bitartez, Gorka Aginagalde aktoreak *El txou de Patxi* delako bakarriketa barregarri eta satiriko egingo du.

Gaur, egubakoitza, Kontzezino kaleko lamai kafetegian, gauerdian.

OÑATI

### > Txan magoak emanaldia egingo du etzi, domeka

Txan magoak ikuskizuna egingo du, Errekalde Herri

PROPOSAMENA



BERGARA

### > Erramu-zapatua ospatuko dute Bergaran eta gaur, egubakoitza, bertso saioa egingo dute

Erramu-zapatuko jaiaren egitarauaren barruan, gaur, egubakoitza, bertso saioa izango da pilotalekuan, 22:30ean, Jone Uria, Julio Soto, Joxe Agirre, Iker Zubeldia eta Uxue Alberdirekin, Jardunen eskutik. Bihar, feria izango da; 11:00etan, Luma Gorri oilasko-dastatzea izango da Munibe plazan; 12:00etan, erakusketako behien erakustaldi gidatua; eta beste hainbat ekintza, gauera arte.

Feria 09:30ean zabalduko dute. Erdigunean egingo dira postuak eta ekintzak.

Eskolak antolatuta. Sarrerak eskolan eros daitezke, 3 eurotan, eta egunean bertan, Santa Anan.

Ikuskizuna etzi, domeka, izango da Santa Ana aretoan, 17:00etan.

## Erakusketak

GASTEIZ

### > Juan Jose Altuna Akizu margolariaren lanak, ikusgai

Juan Jose Altuna Akizu margolari arrasatearrak erakusketa inauguratuko du gaur, egubakoitza, Ikusiarte

## ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

### GAIA ERAKUSKETA IRAUNKOR BERRIA

Energia eta Natura dira erakusketa honetako ardatz nagusiak. Bisita gidatuak asteburutan: 13:15 eusk. eta 17:45 gazt.

### PLANETARIUM DIGITALA

Erresoluzio handiko irudi ikusgarriak kupula osoan proiektatuta. Asteburu eta jai-egunetako saioak: 12:00-13:00-15:30-17:00-18:00.

**Eboluzioa:** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu

**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa

**Itsua izar begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat

**Kartoizko suziaren sekretua:** Haurrei zuzendutako saioa. Eguzki sistemako planetak

**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa, gaur ikus dezakegun zerua ezagutzeko

**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sistemaren zehar bidaia  
**Kaluoka'hina, uharri sorgindua:** Haurrei zuzendutako saioa. Arrain koloretsuen abenturak.

### ERRUSIAR MENDIA SIMULAGAILUA

Asteburu eta jai egunetan irekita  
11:30-14:30 eta 15:30-19:00



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA  
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA  
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78  
[www.miramón.org](http://www.miramón.org)

Ordutegia  
Astelehenetan itxita.  
Asteartetik ostiralera 10:00-19:00,  
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00.



# Eski gainean urritasunik ez

**ESKI EGOKITUA** Ikusmen urritasuna izan arren, emaztearen laguntzarekin eskiatzen du Iñaki Martiarenak

**TXAPELKETAK** Azken bost urteetan hainbat domina irabazi ditu eta orain Espainiako txapelketa prestatzen dabil

**DONOSTIARRA** Aste bukaeretan bere herrira joaten da, baina Arrasaten ere ondo zaintzen dutela dio

ARRITXU BARRUSO > ARRASATE

Iñaki Martiarenak ikusmen urritasuna dauka, baina hori ez da eragozpena bere zaletasun gustukoena egiteko. Neguan, egubakoitza iristearekin batera, Frantziara alde egiten du eskiatzera: "Abiadura sentsazioa asko gustatzen zait; ondo sentitzen naiz".

Dena dela, eskiatzea aste bukaerako zaletasuna baino gehiago da Martiarenarendako. Azken bost urte hauetan ONCE-rekin hainbat txapelketatan hartu du parte eta domina bat baino gehiago ekarri du etxera: "Orain dela hiru urte, zilarrezko domina lortu nuen Euskadiko txapelketan, eta brontzekoa Espainiakoan. Nire urte onena izan zen". Aurten Kataluniako txapelketan zortzigarren postuan geratu da eta orain prestatzen ari da apirilaren 4ean Cerlerren jokatu den Espainiako txapelketarako.

**EMAZTEA DU GIDARI**

Eski egokitua egiteko ezinbestekoa da gidari lanak egiten dituen pertsonarekin ondo moldatzea.



IÑAKI MARTIARENA Ezkerreko argazkian Arrasaten, eskiak eskuan dituela, eta eskuinekoan emaztearekin La Mongie eski estazioan (Frantzia).

YOLANDA ZUBIGARAI



Martiarenak, alde horretatik, abantailarekin jokatzeko du: emazte Yolanda Zubigarai gidatzen du elurretan. Hogei urte baino gehiago daramatzate elkarrekin; beraz, bikote sendoa osatzen dute. "Elkarrekin hasi ginen eski ego-

kitua egiten; hura izan da beti nire gidaria. Garrantzitsua da elkar ondo ulertzea. Hura aurretik joaten da eta aginduak ematen dizkit: ezkerrera edo eskumara joan eta salto edo izotz plakak badaude, horietaz ohartarazi".

**EZAGUNA ETA ESTIMATUA**

Jaiotzez donostiarra izan arren, Arrasaten ondo ezaguna da Martiarena. Hamabost urte daramatza ONCEko kupoia saltzen; gaur egun Musakolako postuan eta parrokia inguruan egoten da.

Baina ezaguna bakarrik ez, estimatua ere bada; ikusi besterik ez dago jendeak nola agurtzen duen kalean. Aste bukaeretan Donostiara joaten da familiarengana, baina Arrasaten ere oso ondo zaintzen dutela adierazi digu.

## ahobero

"Orain ezkongabea naiz eta emakumeek ilarak egiten dituzte nirekin egoteko"

Silvio Berlusconi > Italiako lehen ministroa

Ahoa zabaltzen duen bakoitzean haren hitzak jasoko bagenitu, gure *Ahobero* tartean protagonista bera izango luke beti: Silvio Berlusconi. Txundituta ei dauka emakumeak, eta gu horrek txunditzen gaitu. Bikotekiderik ez duela esan du; bikotekiderik ez, baina, antza denez, ezta amamarik ere.

## iturri onetik

Gose eta Anger taldeen kontzertua telebistan grabatuko dute Elgetan

Gose eta Anger taldeek Espalioan egingo duten emanaldia grabatu egingo du ETB3 telebista kateak. Kontzertua apirilaren 17an izango da, 22:00etan hasita. Motorrak berotzen hasi nahi dutenek Anger taldearen azken diskoiko abestiak doan jaitsi ahalko dituzte taldearen webgunetik. Bestetik, laster ikusgai izango dugu Gose taldeak Japonian grabatutako azken bideoklipa.

## piperrautsa

Mikel Irizar > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

Bagara

Ez nuen joaterik izan Amaia ekitaldira, baina asko interesatzen zait egitasmoa. Debagoiena ekimen askoren sorleku izan da, ekonomia, hezkuntza, komunikazio edota gizarte alorretan, mundu zabaleko hainbat komunitaterentzat erreferentzia bihurtzeraino.

Baina bulkada horri osotasun ikuspegia falta izan zaio osagai guztiak egitasmo bakarraren baitan txertatzeko, auto-eraketa ariketa kolektiboa eginaz. Kontua da ea ibarrak ba ote duen borondaterik komunitate sendo eta kohesionatua izateko, bere kide guztien ongizate eta giza garapena bermatuz. Azken urteok zalantza piztu dute nigan, espero nituen hainbat bilakera gertatu ez direlako. Ahultze bidean ikusten dut ibarra. Hain zuzen horregatik nago ni ere prest Bagara gurdia bultzatzeko.

## ai, ene!



Horrela errazagoa da eskuekin jatea

Beti esan izan ohi da ez dagoela eskuekin jatea moduko plazerrik; modu horretan erosoagoa eta garbiagoa izango da, behintzat.

www.microsiervos.com

**Ukabi**  
informatika

Enpresa kudeaketa aplikazioak

Era guztietako webguneen diseinua

Etixerako eta enpresetarako salmenta

Domingo Irala z/g  
(Ariznoa aurrean)  
BERGARA Tel.: 943 15 01 01



## Eskaintza eksklusiboa

Prezio hauekin, edonork izan dezake eskuko ordenagailua!

499€

**HP COMPAQ 610 eramangarria**

- Teknologia: Core 2 Duo 2 GHz
- T5870 64 l
- RAM: 4 GB
- Pantaila: 15,6"
- 320 GB SATA disko gogorra
- Modeloa: GMA X3100
- Integratutako webkamera: Bai
- Bateria ireaupena: 5 ordu
- Sistema eragilea: Windows 7 Premium
- Pisua: 2,490 kilo
- DVD±RW DL
- Bluetootha: Bai

... eta ehunka produktu eta eskaintza aurkituko dituzu gurean.